




Paula Odriozola Ruiz:
«Emakume surflariei
buruzko bideorik
ia ez dago» ▶7

Yanilu Ojeda zinema-dokumentalista
venezuelarra Uribe Kostan izan da.
Indigenen zinemaz, justiziaz eta
duintasunaz berba egin du. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



33. zenbakia

2015eko
urriaren 8tik
urriaren 14ra arte

«Eraso eta hilketa matxistarik ez!»

Emakume baten gorpua aurkitu zuten hilaren 5ean, bere bikotekidearen etxean, Astrabuduan. Egun bi beranduago gizona espetxeratu zuen epaileak, hiltzailea delakoan. Herritarrek amorrut hartu dute hilketa. ▶5



Dozenaka pertsonak egin zuten manifestazio zaratsua urriaren 6an, Astrabuduan, Erandioko Emakumeen Elkarteko Soziokulturalak eta Txoko Feministak deituta.

SAKONEAN URIBE KOSTA

Zegamatik Barrikara

Mikel Etxezarreta artzainak
Gipuzkoatik Uribe Kostarainoko
bidea egingo du artaldeagaz.
Astelehenean ondoetorria egingo
diote Getxon. ▶ 22-23



HERRIZ HERRI LEIOA

Gazteluetako sexu-erasoak salatu dituzte

Orain adinez nagusi den ikasle
ohi batek aurkeztu du salaketa;
12 urte zituenean, irakasle batek
eraso egin ei zion.

Lehenago, ikerketa artxibatu egin be-
har izan zuten. Javier Calparsoro EAE-
ko fiskal nagusiak azaldu duenez,
«adituen txostenak eta txosten psiko-
logikoak eta bestelako froga berriak
agertu dira orain, gertaeren larritasu-
na berresten dutenak». ▶6

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Bereizkeriaren kontra, Beldur Barik lehiaketa



**Extremadurako
Kultur Astea** ospatuko
dute hilaren 9tik 18ra
Astrabuduan. Askotariko
ekitaldiak egongo dira. ▶5

Nesken eta mutilen
arteko berdintasun-maila
ikertzeko proiektua
martxan ipini dute
Lemoizen eta Urdulizen. ▶9

**Getxoko Antzerki
Jardunaldiak** aste-akabu
bitan egingo dira, hilaren
10etik 18ra. Kale-antzerkia
ere egongo da, doan. ▶11

**Euskadiko Lasto-jasotze
Txapelketa** jokatu da
domekan, Leioan. Jose
Martin Bustinza txapela
janzteko faboritua da. ▶19



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAGA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Zergatik Catalunyan bai eta Euskadin ez?

Catalunyako emaitzek asko poztu gaituzte batzuk, eta Euskadin ere hone-lako prozesu bat abian jarri dadin nahi dugu. Baina baldintzak berdinak ez badira zaila izango dugu antzeko bide bat gauzatzea. Eta nire uste apalean baldintzak oso ezberdinak dira. Hona hemen nire ustez lau:

1.- Hemen ETA izan dugu urteetan, eta gizarteari hain min handia egin dio, jendea sakabanatu zuen, gorrotoa ekarri zigun. Zaila izango da gizarte hori bateratzen, normaltzen, nahiz eta indarkeria hori elkarrekin bizi garen herri batean izan, batzuk eta besteak askotan familia berekoak izanda.

2.- Hango eta hemengo egoera ekonomikoak guztiz ezberdinak dira. Han krisiak askoz latzago zigortu du gizartea, laguntza gutxiago dute, langabezia askoz handiagoa, eta independentziaren aldekoa ez zen jende asko eta asko aldekoa bihurtu da. Hemen egoera ez da ona, baina bai hangoa baino askoz hobea.

3.- Han gizarte zibila oso ondo antolatu da, gizartearen ekimenez, eta hango Gobernu ezberdinek laguntza ugari eskaini izan diolako urteetan zehar. Hemen Gure esku dago ekimenak ez du diru laguntzarik, ezta alderdi abertzaleen babes argirik ere.

4.- Han alderdi abertzaleek, urteetan zehar elkarrengandik oso urrutiratuta egon ondoren, hainbat gauzatan batera etorri dira, ez bakarrik erabakitze eskubidea defendatzen eta independentziaren aldarrikapena bultzatzen, baizik eta gobernatzen ere bai, bata (ERCK) besteak ere laguntzen (CiUri).

Bide hori, gure erara jakina, jarraitu edo hasi nahi badugu puntu hauetan ageri diren gabeziak eta zailtasunak konpontzen hasi beharko dugu, bai gizarteak berak zein erabakitze eskubidearen alde dauden alderdi abertzaleek eta espñolek. ◀

Getxo

Lankidetzarako hainbat ekimen bultzatzeko

Getxoko Udalak

308.000 euro banatuko ditu aurten giza ekintzetan lan egiten duten 15 proiekturen artean.

Udalak 308.000 euro banatuko ditu aurten txirotutako hainbat herritan lankidetzan, sentsibilizazioan eta giza ekintzetan diharduten 15 ekimenen artean. Proiektu horiei esker, 47.300 pertsonak (horietatik 30.000 emakume) euren gaitasunak handituko dituztela uste du Udalak, «hezkuntza, emakumeen jabekuntza, tokiko garapen, ura eta osasun arloetan sustatuta». Bestalde, udalerrian, 4.500 lagun inguruk hartuko dute parte Giza Eskubideen defentsa sustatuko duten sentsibilizazio-arloko proiektuetan. Giza ekintzako proiektuek, berriz, Ekialdeko Europako adingabeko batzuk artatzea ahalbideratuko dute.

Deialdiagaz, «Getxok txirotutako herrietako pertsonekin duen konpro-



Diru-laguntzak udalerriko 15 ekimenen artean banatuko dituzte.

miso solidarioa bultzatu nahi dugu, baita udalerrian sentsibilizazio-jarduerak egiteko eta egoera zailen bizi diren umeak hartzeko familia getxotarrei laguntzea ere. Hori errealitate izateko, ezin dugu ahaztu GKEen, entitateen, elizen eta auzokideen lagun-

tza eta lan desinteresatuak ditugula», nabarmendu du Irantzu Uriartek Garapeneko Lankidetzako zinegotziak.

Hala, 263.800 euro garapenerako lankidetzako atalera bideratuko dituzte; 43.000 euro, sentsibilizaziora, eta 1.200 euro, giza ekintzetara. ◀

Getxoko kartografia eguneratu eta eskuragarri utzi du Udalak

Udal kartografia eguneratua eskuragarri dago Udaleko webgunean. Hiri-lurzoruaren zatirik handiena 1/500 eskalan dago eginda, eta Foru Aldundiaren 1/1000 eskalako kartografiagaz osatu da. 2011ko udagoienaz geroztik, Udaleko topografia garbitu, antolatu, berrikusi eta berritzen dabil da Hirigintza Arloa. ◀



Zurrumurruen aurkako eragileen bilerak, berriro abian

Zurrumurruen kontrako estrategia-zen eragileek hilaren 7an hasi zituzten berriro ere urteko azken hiru hilakorako bilerak. Hurrengoak hilaren 21ean (eguztena), azaroaren 5ean eta 18an (eguna eta eguztena, hurrenez hurren) eta abenduaren 17an (eguna) izango dira, 19:00etan, Algortako kultur aretoan.

Aurretik egindako heziketa-prozesuetan parte hartu duten dozena bat

eragilek sustatzen dituzte eurek osatutako lau lantalde (Komunikazioa, Heziketa, Garapena eta Eragina), estrategiarako garrantzitsu izan daitezkeen gaiak jorratzeko.

Getxoko Udalak jarri zuen abian zurrumurruer aurre egiteko estrategia hori; horren helburua zalantza sortzea, zurrumurrei kontra egitea eta zurrumurruak ezeztatzea da. ◀

info+: www.getxo.eus

Langabetuak kontratatze diru-laguntzak

Langabetu getxoztarrak kontratatze diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago oraindino. Diru-laguntza horiek, alde batetik, udalerriko enpresei daude zuzenduta, eta, bestetik, gizarteratze-enpresa, enplegu-zentro berezi edo irabazi asmo bako erakundeei. 2015. urtean enplegua sustatzeko bertoko Jardueren-tzako diru-laguntzen deialdiaren barruan dago aipatutako subentzio hori, Lanbidek deituta. Enpresek, dende eta profesionalek kontratuak egiteko 192.000 euro bideratuko ditu Udalak; gizarteratze-enpresa, enplegu-zentro berezi edo irabazi asmo bako erakundeei kontratuak egin ditzaten zuzendu dituzte, berriz, beste 66.997,17 euro.

Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratuta dagoen lan-eskaintzaren bitartez aukeratuko dira kontratazio horietarako hautagaiak. Horregatik, ezinbestekoa izango da interesa dutenek Lanbiden izena emanda edukitzea. ◀

info+: getxolan@getxolan.eus / 944 660 320

Getxo

Udalaren jarrera salatu dute Hezetasunakoek

Martxan da Hezetasuna auzoko Iturribarri ingurua urbanizatzeko egitasmoa. Makinak beharrezko dabilta daborduko, eta baratzetatik gauzak ateratzeko atzerako kontaktaren azkenengo egunak dituzte ortuzaleek. Bertoko auzokideek euren ezinegona azaldu dute behin eta berriro, baita Udalarri euren kezak aurkeztu ere; baina, Leire Azkargorta Hezetasuna Auzoko Bizilagunen Taldeko kideak azaldu duenez, «Udalako gobernu-taldeak ez du kontuan hartzen auzokideen iritzia, eta ez du sortu parte-hartze espaziorik». Horren albotik, salatu du proiektu horien aurrean auzokideen iritzia «txiki» gertatzen dela.

Oposizioa alderdiek, baina, egoeraren jakitun, berba egin dute horren inguruan. EH Bilduk EAJren politika urbanistikoa salatu du; koalizioaren ustez, Getxoko herritarrek berdeguneak gura dituzte, «eta ez daude ados garapen eredu horrekin». Euren iritziz,

«burututako egintza» egoera baten aurrean daude; hala ere, agindu dute lan egingo dutela HAPO berrian herritarren nahiak eta interesak kontuan har daitezkeen. GUK ere Iturribarriko proiektuaren kontra agertu da. Gune berdeen masifikazioa gaitzetsi dute, «eta are gehiago udalerrian etxebizitza huts ugari dagoenean». Era berean, gogor salatu dute proiektua bideratzeko modua: «espekulazioaren zirkulua ixten da, udal lurzorua aurrezki-kutxa publiko batetik igaro eta fondo putre baten esku bukatzean». Alderdi horren arabera, Getxok «behar» duen herri-parke handia egiteko leku «apropoia izan zitekeen» Iturribarri. Ciudadanos-en iritziz, berriz, inguruan dagoen «arnasgune bakarra» dira bertoko ortuak. Azkenik, Eduardo Andrade PPko zinegotziak adierazi du «beharrezkoa» dela inguru horren garapen urbanistikoa; eta proposatu du bertan eraikiko diren etxebizitzak Andra Marin eraiki nahi dituztenetatik kentzea. ◀

Negozioa hobetzeko tailerra antolatu dute

Udalerriko enpresa txikiei, profesionali eta euren enpresa sortzeko prozesuan dauden ekintzailei zuzendutako prestakuntza plana abiatu du Getxolanek. Horretan parte hartzeko, alde aurretik izena eman beharra dago. Hala, enpresa-kudeaketaren hainbat alderdiren inguruko tailerretan parte hartuko dute interesatuek. Horien artean egongo dira honako hauek: zelan saldu gehiago, hobeto eta errentagarritasun handiagoagaz; banka-tailerra, eta errentagarritasunaren analisia, besteak beste. ◀

harremanetarako: getxolan@getxolan.eus

Martxan da Wanted ideia-lehiaketa

Martxan da aurten ere gazteen proiektuei laguntzea helburu duen Wanted lehiaketa. Aurrekoetan bezala, eskudiruzko sariez gainera, irabazleek bestelako laguntza ere izango dute, berbarako: aholkularitza, orientazioa eta formakuntza. Deialdirako aurrekontua 18.000 eurotik 22.000 eurora igo da aurten; hala ere, 10.000 eurokoa izango da proiektu baten jaso dezakeen gehieneko laguntza. Interesa dutenek proiektuaren zirriborro bat aurkeztu beharko dute, urriaren 12tik azaroaren 3ra bitartean, deialdiagaz onetsitako gidoiari jarraituz. ◀



Ertzean

LAURA MINTEGI LAKARRA
Idazlea eta irakaslea

Hezetasuna auzoko ortuak

Hezetasuna auzoan hondeamakinak sartu dituzte dagoeneko eta laster eremu lau eta lehorra bihurtuko dute hiri-ortuak direnak, etxola txikiak eta baserri zaharrak. Eremu idorra izango da Jesus batean, eta ondoren Arene-azpi kalearen luzapena: etxeak, espaloiak, zimentua eta parke txikia, eremu osoaren %10ean. Hiri handietan aisialdirako ortuak esleitzen diren bitartean, egun dauden apurak suntsitu egiten ari dira Getxon. Begi bistakoa da etxe gehiagorik ez dela behar, ehundaka pisu hutsik egonda. Jabegoarekin egin dugu topo beste behin, komunitatearen interesen gainetik. Kolokan dago zer nolako herri eredu nahi dugun, lurraldeak norenak diren gorabehera. ◀



**ZUREKIN
HITZ EGIN
NAHI DUT**

berbalaguna



izen ematea urrian

Web gunean fitxa bete, e-postaz datuak bidali edo bulegora fitxa ekarri:
EGIZU Getxo Euskaldun - Martikoena 16, 2. solairua, 3. bulegoa - 48992 (Alango) - Getxo
E-postaz: egizugetxo@gmail.com - Internetez: www.egizu.eus

Informazioa:

EGIZU Getxo Euskaldun elkarte

619 935 541 - egizugetxo@gmail.com - www.egizu.eus

Sustatzaileak / Arloetakoak



Babesleak



Bideoa ikusteko



Getxo

Urriaren 31ra aldatu dute Indabada egiteko eguna

Hasiera batean Indabada Mundiala hilaren 24an izango zela iragarri bazuten ere, antolatzaileek urriaren 31ra atzeratzea adostu dute, hasierako datan Alternatiben Herria izango baita Bilbon. Baba-jan handi horrek hamasei urte beteko ditu aurten, eta ohi den legez, ehunka lagun batuko ditu Txiki-Otaegi plazan. Egun handi hori prestatzeko, herri-bilerak egiten da biltza domekaro, Txiki-Otaegi plazan, arrastiko 07:30ean. Asko dago egiteko oraindino; hortaz, eguna heldu bitartean, bileretara hurreratzeko deia egin dute antolatzaileek. ◀

Alde Hemendik Eguna egingo dute hilaren 10ean, Algortan

Hispanitatearen eguna eta Guardia Zibila eguna ospatzen da hilaren 12an. Horren aurrean, Algortatik Hanka indar errepresiboen kontrako mugimenduak Alde Hemendik Eguna antolatu du hilaren 10erako, zapatua. Egun osoko egitaraua prestatu dute egun horretarako guardia zibilek udalerritik alde egin dezaten aldarrikatzeko. Hala, goizeko 11:00etan eman go diote hasiera egitarauari, herriaren apaintetaz. Horren ostean, tripa betetzeko eta indarrak berreskuratzeko bazkaria egingo dute Villamonteko plazan, bost euroren truke. Ondoren, bertatik abiatuta, kontzertu ibiltaria egingo dute Estricalla musika-taldea-gaz batera.

Algortatik Hanka mugimendu irekia da, Euskal Herrian, eta, zehazki, Algortan «indar polizial errepre-siboak» kanporatzeko, eta Guardia Zibila, Espainiako Polizia eta Ertzaintzaren «botere eta zigorgabetasuna» ahuldu eta «haien errepresioa» azalerratzeko dituzten helburu, besteak beste. ◀

«Lehia beste era batean enfokatu genuen»

Lauro ikastolako Betabot taldea finalista izan da Googlek antolatutako mundu mailako zientzia txapelketa batean. Orain beste proiektu batean murgilduta dago, eta azaroan aurkeztuko du finalera heldutako lana Getxoko ludotekan.



Amaia Perez irakaslea, Ander Aguiriano eta Jon Andoni Breton, aurkeztutako proiektuagaz.

IKER RINCON MORENO ▶

Lauro ikastolako Ander Aguiriano, Jon Andoni Breton, Sue Gonzalez eta Asier Rementeria ikasleak finalistak izan dira Googlek mundu mailan antolatutako Moonbot txapelketan.

Zelan hartu duzue emaitza?

Pozik horra heldu ginelako, baina desengainatuta. Gure faboritoetako batek irabaziko zuela uste genuen, baina azkenean, 8 eta 9 urte arteko umeez osatutako talde batek irabazi du. Lehiaketa beste modu batean enfokatu genuen, modu teknikoagotik, eta

emaitza ikusita, guretzat ez da izan oso logikoa; epaimahaiak bestelako konturen bat bilatzen zuen.

Zein izan da zuen proiektua?

Ilargiaren orografia ikertu ostean, bertan sei misio egiteko robot bat sortu genuen. Misio bakoitzak berezitasun bat du, eta robotak bidaia bakar batean egin behar ditu horiek guztiak: erradioteleskopioa piztu, orbita bat simulatzen duen satelitea martxan jarri, krater batean dauden lagin biologikoak alde batetik bestera eraman, gurdi bat mugitu, eguzki xaflak altxatu, eta gure taldearen izena daraman kartela altxatu (BETA, Bakea, Elkarta-

sun, Talde-lana eta Amodioa). Misio guztiak bete ostean, bera bakarrik batera bueltatzen da.

Zer erabili duzue hori dena egiteko?

Robota aldeztu aurretik programatu behar izan dugu, ordenagailu batean, bloke bezalako sistema batean. Ondoren, neurtu behar izan dugu zer gura dugun robotak egitea, sentsore batez gaz lerrokatzeko, adibidez. Hori egin da, robotaren memorian sartu, eta boti bat sakatzeko, misioa hasten da. Horretarako, misio guztiak diseinatu, eta eraiki behar izan ditugu.

Aurretik ere, horrelako lehiaketetan parte hartu duzue, ezta?

Bai, iaz *First Lego League*-an parte hartu genuen, eta aurton, Zientzia Azokan. Azken horretan, aurkeztutako proiektu zientifikoak irabazi du, eta azaroan Galiziar goaz proiektua azaltzera. Hezkuntzaren inguruan ikertzen hasi ginen, eta galdetegi eta elkarrizketa batzuk egin ostean, ikusi genuen komunikazioa oso garrantzitsua zela. Hala, komunikazioa ez zela ona ikusi, eta arazoa finkatu genuen. Hori kontuan izanda, aplikazio bat diseinatu genuen, arazo-mota ezberdinak konpontzeko beste azpi-aplikazioak dituen. Autistentzat eta etorkinentzat aplikagarria da, berbarako. Ume autista batez egin dugu lan, eta aplikazioa diseinatu diogu, *picto*-en bitartez komunikatzeko eta esaldiak sortzeko. Bideragarriak izatea bilatzen dugu. ◀



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN
Emak-Umea eta Pertson-Ona

Ametsak amets...

Zinea beste era batera ikusi, posizioa aldatuta, ohe bikoitzetatik. Oharra: Oheak pertsona birentzat dira, bakarrik bazatoz beste inorekin oheratu beharko duzu. Hauxe zen aurtengo edizioari agur esateko Getxophotok proposatutakoa. Eszenatokia ezin hobea, Getxoko bazter kuttunetarikoa bat, polemikoa ere: Punta Begoña. 15 ohe, 15 «bikote» arkupetako hormetan proiektatzen zen pelikulari begira. A ze erromantikoa! Etxanda, gustoko dudak Jim Jarmusch-en filma ikusten nengoela, amesteari ekin nion; Barceló eta beste amesgaiztoak uxatuta, ea behingoz, ondare preziatu hori konpondu eta getxotar guztiak goza dezaket... ◀



Erandio

Amorruz hartu dute Astrabuduko hilketa

Emakume baten hilotza aurkitu zuten urriaren 5ean, bere bikotekidearen etxebizitzan, indarkeria zantzuakaz. Egun bi beranduago gizona espetxeratu zuen epaileak.



Eguaztenean, hainbat herritan egin ziren elkarretaratzeak.

Dozenaka pertsonak egin zuten manifestazio zaratatsua urriaren 6an, martitzenean, Astrabuduan, Erandioko Emakumeen Elkarteko Soziokulturalak eta Txoko Feministak egindako deialdiari erantzunez. Lehenengo eta behin, elkartasuna adierazi zieten aurreko egunean Mezo kaleko etxebizitza batean hildako 39 urteko andre bilbotarraren senideei eta lagunei. Horren ostean, argi utzi zuten «bere bikotekideak erail» zuela emakumea. Emakumeen Mundu Martxak utzitako arrastoari jarraituta, «emakume guztiak libre izan arte, geldituko ez» direla adierazi zuten; «autodefentsa feminista» praktikan jartze-
ra deitu zuten.

Egun berean, 13:00etan, Bilboko udaletxearen parean izandako elkarretaratzean ez ezik, Astrabuduko manifestazio zaratatsuan ere parte hartu zuten Joseba Goikouria alkate erandioztarrak eta bertoko talde politikoe-tako ordezkariak. Hain zuzen ere, martitzen goizean adierazpen bat onartu zuen Erandioko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, talde denen babesagaz. «Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, isilik ez geratzeko eta ez onartzeko» eskatu zieten alderdiek herritarrei. «Indarkeria matxistaren egoera deitoragarri baten ondorioz, emakumea tragikoki» hil dutela gaitzetsi zuten. Era berean, atsekabea azaldu zuen Bozeramaileen Batzor-

deak, eta gertakari ulergaitza dela esan zuen. Halaber, elkartasuna adierazi zieten biktimaren hurbilekoei.

«Emakumeen aurkako erasoak segurtasun fisikoaren eta moralaren kontrako erasoak dira, baita emakumeen duintasunaren aurkako erasoak ere. Ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina da, eta salatu egin behar da, ez onartuz, isilik ez geratuz eta biktimei babesa emanez», gaineratu zuten.

Gertaerak

Astrabuduko Mezo kaleko etxebizitza batean aurkitu zuten joan den astelehenean, urriak 5, 39 urteko emakume bilbotar baten gorpua, indarkeria zantzu argiakaz. Senideek domekan aurkeztu zuten andrea desagertu zelako salaketa. Horren arabera, zapatu arrastitik falta zen etxetik. Hain justu, bilatzeari ekin ziotenean aurkitu zuten emakumezkoaren hilotza.

Topatu ostean, bikotekidearen bila hasi zen Ertzaintza, hilketaren susmagarri nagusia zelakoan; gorpua agertutako etxean bizi da gizonazkoa, bere amagaz. 38 urteko astrabuduarra astelehenean bertan atxilotu zuten, arrastian, Leioako Unbe mendiko Akarlandan parkean. Poliziaren egoitzan egun bi eman ostean, Ertzaintzak eguazten arrastian eraman zuen epailearen aurrera eta behin-behinean espetxeratzeara agindu zuen horrek. ◀

Extremadurako Kultur Astea egingo dute Astrabuduan

Astrabuduan dagoen Extremadura-ko Etxeak antolatuta, jaioterriko ohiturak eta kultura auzoan zabalduko dituzte han jaiotako etorkinek. Izan ere, barikutik hilaren 18ra arte, 33. kultura-astea prest dute. Adin guztientzat, zer egin egongo da.

Besteak beste, zapatuan eta domekan, Extremadurako eta Euskal Herriko azoka egingo dute, goizeko 10:00etatik aurrera. Era berean, musika-emanaldiak egongo dira: bari-kuan, La Encina extremadurarrak joko dute, eta domekan, oster, Iñaki Basabe bertoko musikariak kantatuko du. Hilaren 12an, 12:30etik aurrera, Erandioko Udal Musika Bandak joko du; eta ondoren nagusien-etxeko abesbatzaren txanda izango da. Gauean, gizonak afaria edukiko dute; eta egun bi beranduago, hilaren 14an, emakumeek. Umeen Eguna urriaren 16an izango da: puzgarriak, esku-lanak, eta Merlin Magoaren eta Amama Joxeparen ikuskizuna edukiko dituzte gozagai, arrastian. ◀

Egunotan

Urriak 9, barikua

- 19:00 Kultura-astearen hasiera.
- 20:00 La Encina taldearen emanaldia.
- 21:00 Extremadurako produktuen dastaketa.

Urriak 10, zapatua

- 10:00 Extremadurako eta euskal azoka.
- 19:30 Flamenkoa, Josu Murueta plazan.

Urriak 11, domeka

- 10:00 Extremadurako eta euskal azoka.
- 12:00 Betiko jolasak.
- 19:00 Iñaki Basaberen kontzertua.

Urriak 12, astelehena

- 12:30 Udal Musika Banda, Josu Muruetan.
- 19:30 Nagusien etxeko abesbatza.
- 22:00 Gizonen afaria.

Urriak 13, martitzena

- 18:00 Bideo-emanaldiak.
- 19:00 Mahai-jokoaren finalak.

Urriak 14, eguaztena

- 15:00 Emakumeen bazkaria.
- 18:00 Sabel-dantzaren erakustaldia.



Besteak beste, pelbis-zorua indartzen erakutsiko dute. © SANTURTZIKO BERDINGUNEA

Emakumeen Jabekuntza Eskolan ikastaroak, doan

Hurrengo hiruhilekorako hainbat ikastaro antolatu ditu Emakumeen Jabekuntza Eskolak. Urriaren 19tik azaroaren 30era arteko astelehen guztietan, pelbis-zorua indartzeko eskolak emango dituzte Erandiogoiko kultur etxean, 18:30etik 20:30era. Urriaren 27tik 29ra, oster, *Zure ahotza aktibatu!* izeneko ekimena egingo dute, Astrabuduko anbulatorio zaharrean. Ordutegia 17:00etatik 20:00etara izango da, astelehenean izan ezik.

Lehenengo egunean, beste ordubetez luzatuko dute. Azkenik, urriaren 20tik abenduaren 15era arteko martitzene-tan, *Amatasun nahiaren mila galde-ra* izenburuko saioak egingo dituzte, 18:00etatik 20:30era, Behargintzan (Bekoa ikastetxea, Altzaga). Ikastaroak doan dira, eta gaztelaniaz. Haurtzaindegi-zerbitzua ere egongo da, laupabost egun lehenago eskatuz gero. ◀

Leioa

Gazteluetako ustezko sexu-abusuak, auzitara

Frantzisko aita santuak berak eskatu du gertatutakoa ikertzeko. 12 urte zituenean, irakasle batek eraso egin ziola salatu du orain adinez nagusi den ikasle ohi batek.



Opus Dei Prelatutzaren menpekoa da Gaztelueta ikastetxea.

Gaztelueta auzian akusazio partikular legez aurkeztuko dela jakinarazi du Bizkaiko Lurralde Fiskaltzak. Orain hiru hilabete aurkeztu zuen denuntzia Leioako Opus Deiren ikastetxean ibilitako gazte batek, 12 urte zituela bertoko irakasle batek sexu-abusuak egin zizkiola salatuz. Javier Calparsoro EAEko fiskal nagusiak onartu duenez, «adituen txostenak eta txosten psikologikoak eta bestelako frogak berriak agertu dira orain, gertaeren larritasuna berresten dutenak». Gaztearen aitari erantzunez, Frantzisko aita santuak 2014ko abenduan bidalitako gutuna gehitu diote aurkeztutako salaketari.

Imanol Goyarrola Gazteluetako zuzendariak ikastetxearen webgunean adierazi du gertaerak frogatuko balira «erabateko gaitzespena mereziko» lukekela, eta ikerketan laguntzeko prest agertu da. Hala ere, gogoratu du EAEko Fiskaltza Nagusiak artxibatu egin behar izan zuela orain urte batzuk abiatutako ikerketa. Bilboko Apezpikutzari dagokionez, ustezko sexu-abusuaren auzitik aldendu egin da;

ohar baten bitartez adierazi du Leioako ikastetxe horrek Opus Deiren Prelatutzari dagokiola juridikoki zein kanonikoki; apezpikuaren eskumenetik kanpo dago. Edozelan ere, «Bilboko Gotzaingoa hasieratik prest agertu da gertakariak argitzen laguntzeko», azpimarratu du apezpikutzak. Bestalde, adingabearen senideei babesa agertzeagatik, Opus Deitik «presioak eta mehatxuak» egin dizkietela salatu du Encarna Garcia Eskola Jazarpenaren aurkako Elkarteko presidentek.

2013ko urtarrilean eman zuen auzia ezagutzera mutikoaren aitak, semeak ustez jasandako abusua hainbat komunikabidetan salatuz, ikastetxeak salaketei erantzun egokia eman ez zielakoan. Aitaren berbetan, Gazteluetako irakasleetako batek sexu-abusuak egin zizkion mutikoari, hasieran 12 urte zituela, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan. 2011n eduki zuten gurasoek horren berri, gazteak ikastetxera joateari uko egin zionean. Hala ere, familiak salaketarik ez ipintzea erabaki zuen orduan, adingabea erabat abailduta zegoelako. ◀

Zabalik dago musika-eskolako bekak eskatzeko epea

Ohikoa den legez, 2015-2016 ikasturtearen lehen hiruhilekoagaz batera, beken eskaera egiteko epea zabaldu du Soinu-Atadia Udal Fundazioak. Hala, Leioako Musika Eskolan ikasten duten leioaztarrek aukera izango dute ikasturte akademikoaren tasak ordaintzeko laguntzak jasotzeko. Bariku honetara arte, urriak 9, egongo da zabalik bekak eskatzeko epea. Jaurlaritzak ematen dituen beken deialdiari dagokionez, hilaren 2an itxi zuten.

Soinu-Atadia Fundazioak 20.000 euro banatuko ditu aurkeztu diren ikasleen artean. Horrez gainera, udal aurrekontuei lotutako 8.081,47 euroko kreditua jarri dute. Puntuaziorik



Deialdia leioaztarrentzat baino ez da.

handiena jasotzen duen eskatzaileari tasen %70 ordainduko dizkiote, eta gainerakoei era proportzionalean murriztuko zaie zenbatekoa, jasotzen duten puntuazioaren arabera. ◀

info +: 944 638 683 / kontserbatorioa@leioa.net

Udan, ia 45.000 lagun sartu dira Pinosoloko udal igerilekuetara

Pinosoloko udal igerilekuetako bainu-denboraldia amaitu da, eta, aurtengo udaldian, 44.727 erabiltzaile egon dira bertan, bertoko arduradunek adierazi dutenez. Ekainaren 13an zabaldu zituzten estali bako igerilekuak; hilabete hartan, 9.296 pertsona sartu ziren kirol gunera. Uztailean, oster, 19.437 erabiltzaile izan ziren, eta abuztuan, 15.269 bainulari. Irailaren 13an itxi zuten udal-azpiegitura, eta ordura arte, 732 pertsona sartu ziren. Uda osoan Pinosolara sartu ziren 44.727 lagun horietatik 23.608k, erdiak baino gehiagok, bazkide-txartelaren bidez egin zuten, eta 21.120 sarrera erosita sartu ziren. ◀

Andoni Hernandezi omenaldia egingo diote zapatuan

Zapatu honetan, urriak 10, omenaldia egingo diote Andoni Hernandez Ibarluzea euskal iheslari politikoa zenari; 13:00etan, Plaza Gorrian. Errefuxiatu leioaztarra irailaren 12an zendu zen Baionako ospitalean, minbiziaren ondorioz; bost egun geroago gorazarre egin zioten Miarritzeko erraustegian. Pili Artze Abascal bere bikotekideagaz batera, 1987an ihes egin zuen Euskal Herritik, ETaren Bizkaia Komandoko kideei alojamendua eman izana leporatzen zietela jakin ostean. Urteetan tortura, atxilotetak eta konfinamendua jasan zituzten biek. Bizitzaren azken urteak Arbonan (Lapurdi) eman zituen Hernandezek. ◀

GetxoGas

Txartel hau aurkeztu baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

TABERNA **Unai** JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela

Islandiar abentura bat, protagonisten ahotik, urriaren 8an

Luisi Eguiluz, Koldo Orbegozo eta Francis Diez esploratzaileen abentura ezagutzeko aukera egongo da urriaren 8an, eguenean, Kurtzio kultur etxean eta 19:30ean. Hiru esploratzaileek Islandiara egindako bidaia kontatuko dute; Vatnajökull glaziarrean bizi izandakoaz jardungo dute: 200 kilometro orduko haizeteei aurre egin zieten. Europako bigarren glaziarrik handiena da Vatnajökull, eta Islandiako handiena (3.000 kilometro kubiko); uhartearen hego-mendebaldean dago. Berbaldia gaztelaniaz izango da. ◀



Vatnajökull glaziarra

La casa de Bernarda Alba lana, zapatuan, kultur etxean

Aste-akabu honetan, Sopelako kultur etxean, Kurtzion, obra eder baten antzezpena ikusi ahal da: *La casa de Bernarda Alba* lana, Federico Garcia Lorca granadar idazlearena. Oraingoan, Gorlizko antzerki amateurreko taldeak taularatuko du lan ezaguna, gaztelaniaz. Emanaldia zapatuan izango da, urriaren 10ean, 20:00etan. Sartzea doakoa izango da. Garcia Lorcak 1936an idatzi bazuen ere, antzezlan ez zen estreinatu ia hamar urte beranduagora arte, 1945era arte, Buenos Airesen (Argentina). ◀

«Olatu handiei argazki onak egin nahi dizkiet»

Paula Odriozola Ruizek hirugarren saria lortu du Sopela Kosta Festeko film laburren lehiaketan.

Genero Ikuspegitik film laburrik onena aukeratu dute epaileek *Las chicas de las olas* filma. Odriozola sopeloztarra da, eta hori da bere bigarren lana.

Lehiaketa garrantzitsua da zuretzat?

Oso pozik nago. Herri mailako lehiaketa da, baina niretzat oso garrantzitsua izan da, nire bigarren bideoa da-eta. Orain surfa modan dago, eta, agian, kolaborazioak egin ditzaket beste produktoreentzat edo webguneentzat.

Bideoaren gai berberak landuz?

Gurako nuke, bai; baita olatu handiak ere. Asko motibatzen naute olatu handiek; horien beldur naiz, baina beldur izateari utzi nahi diot. Oso indartsua da hura: adrenalina hutsa. Argazki onak egin nahi nituzke.

Olatuetako emakumeak aukeratu dituzu film labur honetarako, zergatik?

Badago emakume bat, Pilar Ezkurra; 40 urte daramatza surf egiten. Facebook-en talde bat sortu zuen, 'Chicas en las olas' izenagaz. Eurei omenaldia egiteko egin dut bideoa. Gero eta emakume gehiago dabil surfean, baina emakume surflariei buruzko bideorik ia ez dago.

Musika ere bereziki aukeratu duzu?

Dena da herri mailakoa. Bideoaren abestia Gildas herriko taldearena da:

info+: www.kantaurikoolatua.com

«Crazy girls». Gaiari primeran egokitzen zaio. Inguruko tabernetan jotzen ikusi ditut Gildasekoak; onak dira. Kontzertu batean entzun nuen «Crazy girls», eta erabaki nuen bideorako behar nuela; artean, ez neukan ezer grabatuta, baina banekien abesti horrekin egingo nuela bideo bat. Maketa grabatzen ari zirela bidali zidaten abestia.

Bideoa proiektu baten baitan dago; 'Kantauriko olatua' webgunea?

Bai. Neuk bakarrik sortu nuen, orain dela ia hiru urte. Itsasoa da ardatza. Aurkikuntza izan zen berriro bueltatzea nire itsaso maitera. Itsasoarekiko maitasuna da hori: omenaldia itsasari. Ariketa fisikoa ere egiten dut; itsasoan murgiltzen naiz; igeri egiten dut; garbiketa baten modukoa da. Erronka ere izan zen argazki onak egiten saiatzeko; eta, orain, bideoak. *Las chicas de*

las olas 2 izango da hurrengoa, pertsonalagoa, elkarriketakaz...

Margotu ere egiten duzu, ezta?

Bai, 15 urte daramatzat margotzen, 11 urte neuzkanetik. Mari Mar Kamiruaga sopeloztarragaz ikasi dut; margolari bikaina da. Nire kontura margotzen dut, baina berak laguntzen dit. Margoan ere, itsasoagaz ari naiz orain. Olatuek motibatzen naute. Ez da erraza olatuak margotzea; modu asko dago olatuak margotzeko. Lau koadro saldu ditut. Gurako nuke sakondu, zaila bada ere.

Ingeniaritza ikasi, eta artean jardun?

Ingeniaritza ikasi nuen: herri-lanak. Sistemak ez dit uzten lanik egiten. Beti gustatu zait artea; ez dut egin ikastarorik argazki edo bideogintzan. Oraingo proiektu honetatik bizi ezin banaiz ere, ez dut utziko: oso motibatuta nago. ◀

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

DIDAK hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
i k a s t o l a

Plentzia

Alternatibak ikusarazteko

Alternatiben Herria egingo dute urriaren 24an Bilbon, bizi-eredu ezberdinak ezagutarazteko; hilaren 15ean horren berri emango dute Goñi Portalean.



Bilboko erdiguneak hitzaldi eta tailer ugari hartuko ditu hilaren 24an. ALTERNATIBEN HERRIA

Alternatibak dituen herria bizirik dagoen herria da». Baiez-tapen horri jarraituz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladaren kideek Alternatiben Herria ekimena antolatuko dute hilaren 24an, zapatuan, Bilbon. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, «egunerokoan bizitza ematen diguten hamaika proposamen handi eta txiki-kiren erakuslelhoa, Kartaren ardatz nagusiak jarraituz, Topagune komuna», azaldu dute antolatzaileek. Hala, ekimena Gorliz eta Plentziako herritarren zein uribekostarren artean iragartzeko, eta horretan parte hartzeko deialdia zabaltzeko, aurkezpena egingo dute hilaren 15ean, eguna, arrastiko 07:30ean, Plentziako Goñi Portalean.

Alternatibez betetako herria

Alternatiben Herria gurean ere antolatuz, jarraipena emango dio Bizi mugi-

menduak, 2015eko abenduan Parisen klima aldatetaren inguruko Goi Bilera dela eta, Alternatiben Herriak antolatze-ko egindako deialdiari; «Sistema aldatu, ez klima» goiburuagaz. «Izan ere, badira gure artean alternatibak gaur egungo eredu soziala gainditzen joateko. Horietako asko gure esku daude; beste hainbeste, jorratzeko zain. Guztiek aukera ematen digute Euskal Herri justu, solidario eta desiragarriagoa egiteko», antolatzaileek azaldu dutenez.

Horrenbestez, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladako kideek egun osoko egitaraua antolatu dute hilaren 24rako, Bilbon; hiribilduko erdigunea hainbat gunez beteko dute, horietako bakoitzean, arlo jakin batean oinarrituta, martxan dauden alternatibak ezagutaraziko dituzte, jarduera ezberdinen bitartez: berbaldiak, mahai-inguruak, azoka, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak... ◀

Hainbat ikastaro daude aukeran Goñi Portalean

Plentziako Kultur Etxeak hainbat ikastaroren berri eman du kurtso berrirako. Daborduko, interesa dutenek izena eman dezakete honako hauetakoren batean: helduentzako antzerkia, lana topatzen laguntzeko tresnak, eta gozogintza, *cup cake*-ak egiteko ikastaro praktikoa.

Era berean, WordPress sistema erabiliz, blog bat sortzeko ikastaroa ere eskainiko dute. Azaltzen dutenez, blog gehienak eta web profesionalak sortzeko asko erabiltzen da tresna hori. Hala, WordPress erabiltzen ikasi gura dutenek, edozein blog sortu, aldatu zein kudeatu nahi dutenek ezin izango



Gozogintza tailerra dago aukeren artean.

dute aukera hori galdu. Horretarako, izena eman beharko dute Goñi Portalean, hilaren 13a baino lehen. ◀

info+: www.plentzia.org

Lehiaketa bi eta ikastaro ugari antolatu ditu aurten Araldik

Plentziako Araldi Kultur Elkartek hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte honetarako. Hala, 2015-2016 ikasturtean, interesatuek aukera izango dute honako ekimenez gozatzeko: helduentzako pintura (astelehenetan eta eguaztenetan, 16:30etik 19:30era), umeentzako pintura (zapatuetan, bi txanda: 10:00etatik 12:00etara, eta 12:00etatik 14:00etara), eskulanak (barikuetan, 16:30etik 18:30era), jostaketa (16:00etatik 18:00etara) eta zine-foruma (hilean behin, Goñi Portalean). Era berean, beste hainbat kirol-jarduera ere eskainiko ditu: hala nola, yoga, gimnasia, aerobica, *zumba*, dantza

karibearrak, pilatesa, tai xia, defentsa pertsonala eta saltsa. Kurtsook goizetan, eguerdietan edo arrastietan egin ahal izango dira, eta guztiak Jai Alai frontoian eskainiko dituzte.

Ikastaro horiez guztiez gainera, Araldik lehiaketa bi antolatu ditu: Argazki Lehiaketa eta Narrazio Laburren Lehiaketa. Lehenengo norgehiagokak 11. edizioa izango du aurtengoa; bigarrenak, osterar, 17. ekitaldia. Horieta-koren baten oinarriak zeintzuk diren jakin gura izanez gero, Goñi Portalera hurreratzea besterik ez duzue. ◀

info+: www.araldiplentzia.org
harremanetarako: 946 77 50 31

Gorliz

Euskaraz ikasteko laguntza bi onartu ditu Udalak

Euskararen erabilera eta ikasketa sustatzeko diru-laguntza bi onartu ditu Gorlizko Udalak. Lehenengoa, iragandako udan ikastaroren bat euskaraz egin duten guztiei bideratutakoa; ikastaro horiek, besteak beste EHUK, UEUK eta HIK HASI aldizkariak antolatutakoak dira. Bigarren diru-laguntza, berriz, 2015ean aisialdiko begirale izateko ikasketen ikastaroren

bat euskaraz egin duten neska-mutil guztiei zuzenduta dagoela jakinarazi du Gorlizko Udalak.

Euskararen erabilera sustatzeko deialdi horien bien inguruko informazio guztia eta eskabide orriak udaletxean bertan eskuragarri egongo direla iragarri du bertoko Udalak, urriaren 13tik abenduaren 14ra arte. ◀

info+: www.gorliz.eu

Abian dira nagusientzako tailerrak erakusketa-aretoan

Martxan dira nagusientzako tailerrak Gorlizen. Hilaren 8an, eguna, izango da lehenengo kurtsoa, 11:30etik 13:30era, bertoko erakusketa-aretoan. Tailerrok barreterapia izango dute oinarri, eta urriaren 15ean, 22an, 29an eta azaroaren 5ean izango dira hurrengo saioak, guztiak eguenak. Horietan izena emateko azken eguna irailaren 30a izan zen. ◀



Urduliz

Ospitalearekiko zalantza ugari

Mari Luz Marques izango da Uribeko ESlen zuzendari-kudeatzailea; oposizioak azalpenak eskatu ditu Osasun sailburuaren emaztea delako. Era berean, ospitaleak hainbat zalantza sortu ditu sindikatuen artean.

Osasun Sailak hainbat Era-kunde Sanitario Integratuen (ESI) zuzendaritzak ofizialdu ditu; horien artean, eskualdekoa. Mari Luz Marques Gonzalez izendatu dute Uribeko ESlen zuzendari-kudeatzaile. 21 udalerrri hartzen dituen osasun-gestioa kudeatuko du. Era berean, Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalea martxan ipintzeko jarduerak zuzendu beharko ditu. Eraikin horren inaugurazioak hiru urteko atzerapena daroa, eta Osasun Sailaren arabera, 2016ko bigarren erdialdean zabaltzea dago aurreikusita.

Marques Gonzalez bakarrik aurkeztu zen deialdi horretara, eta esleipena izendapen libreko prozeduraragaz egin dute. Postu horretarako, titulazio unibertsitarioa izateaz gain, Osakidetza administratzaileko eta gestiorako esperientzia izatea eskatzen zuen. Marques familiako medikua da, eta 2009tik Uribe eskualdeko zuzendaria izan da, Julian Perez Gil Osakidetzako kudeatzaileak izendatuta.

Oposizioa alderdi guztiek azalpenak eskatu zituzten Osasun sailburuari, ESlen zuzendaritzak osatzeko bidean harira. Eta Marques Gonzalez Jon Darpon Osasun sailburuaren emaztea izanda, ondorioz, alderdi batzuek, hura izendatzeko erabili dituen irizpideak argitu ditzala eskatu zioten Darponi.

Alfredo Espinosa ospitalea

Osasun Sailaren proiektuen artean, Urdulizko ospitaleak sortzen ditu zalantza gehien. Eskumaldeako ospitalea izateko helburuagaz ekin zioten eraikitzeari, eta hainbat atzerapen izan ditu proiektuak. Era berean, ospitalea antolatzeke ereduaren inguruko informazio-erakundeak hainbat zalantza sortu ditu osasun-arloko sindikatuen artean. Proiektu horren inguruko informazio gehiago eta gardentasuna eskatu dute sindikatuek.

Salatu dutenez, joan den uztailan mahai sektorial monografikoa egiteko eskaria egin zuten, ospitalea martxan ipintzearen eta antolakuntzaren inguruko informazioa jasotzeko; hala ere, Osakidetzako zuzendaritzak ez die hori egiteko datarik helarazi. Bien bitartean, sindikatuak alderdi politikoak batzen dabilta euren ezinegona jakinarazteko. Gogoratu dutenez, martxan jarritako azkenengo ospitalean, Gernikakoan, zerbitzu batzuk kanpoan kontratatu gura izan zituzten, eta beldur dira Urdulizkoan gauza bera gerta daitekeelako.

Osasun Sailak adierazi duenez, hainbat zailtasun ikusten dituzte ospitalearen proiektua garatzeko, berarako ospitalerako sarbideek sortu dituzten arazoak; horrek ika-mikak ere sortu ditu Sopela eta Urdulizko udalen artean.



Alfredo Espinosa ospitalea 2016ko bigarren erdialdean irekitzea aurreikusten du Osakidetzak.

Ur Partzuergoko zuzendaritzan egongo da Urdulizko alkatea

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko bilkura orokorrak datozen lau urteotarako zuzendaritza-taldea eta gainerako oinarritzako taldeak onartu ditu. Ricardo Barkala Bilboko alkateordea izango da erakunde presidentea; Josu Bergara Sestaoko alkatea, berriz, zuzendaritza-batzordeko presidenteordea izango da. Gainerako bost kideak Abanto-Zierbena, Derio, Gordexola, Iurreta eta Urdulizko alkateak izango dira.

Aukeraketa horregaz, batzorde osoa EAJko kideakaz osatuta egongo da, kontuetarako batzorde berezian

gertatzen ez den bezala. Bertan, bilkuran parte hartzen duten alderdi politiko guztien ordezkariak daude. Gauzak horrela, aniztasun gehien duen batzordea da. Ahal Dugu-ko ordezkariak aniztasun hori eskatu dute Ur Partzuergoaren gainerako organoetan; presidente berriak agindu du aztertzeke gaia izango dela hori.

Zuzendaritza-batzordea Udal Sareako administrazio-kontseilua izango da. Udalerrietako bigarren mailako sareak kudeatzen dituen enpresa da Udal Sarea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko menpekkoa.



Gaztelekuaren 1. urteurrena ospatu zuten joan den irailaren 26an. Jaialdiaren egitaraua bertoko begiraleen eta bertan dabilzan kuadrillen artean antolatu zuten. Hala, bertaratutakoek pintxo-lehiaketaz, kontzertuez eta afari batez gozatzeko aukera izan zuten. © URDULIZKO UDALA

Lemoiz eta Urduliz

Gazteen berdintasun-maila ikertzeko bideoa egingo dute

Neska eta mutilen arteko berdintasun-maila ikertzeko Red Kuorum Sarea egitasmoa abiarazi dute, Lemoizko eta Urdulizko udalak batera. Helburua da neska eta mutilen arteko berdintasun-maila neurtzea, eta generoak modu batean zein bestean baldintzatu edo mugatzen dituen ikertzea. Horretarako, Red Kuorumek hainbat jarduerak martxan ipini gura ditu: elkarrizketak, bideoak, ginkanak eta lehiaketak, besteak beste. Hurrengo saioa film labur bat egitea izango da. Horren bidez, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak azaldu eta horiek murrizteko proposamenak aurkeztuko dituz-

te. Antolatzaileek azaldu dutenez, lan hori elkarlanean egingo da; gaur eguneko errealitatea ezagutarazten lagunduko du, «ondo pasatzen duten bitartean». Ekimen hori urriaren 15ean egingo dute, egunean, Lemoizko kultur etxean. Hurrengo egunean, berriz, Urdulizko Gaztelekuan egingo dute. Azkenik, azaroaren 16an, ginkana egingo dute Urdulizen.

Ikerketa osatzeko, gazteak behar dituztela jakinarazi dute Red Kuorum sareko kideek; hala, interesa duenak parte hartzera hurrera daiteke.

Uribe Kosta



«Hiriaren jabea» argazkia izan da bozkatuena, 95 botogaz.

Ibai Maguregik irabazi du argazki-lehiaketa

Uribe Kostako uda» argazki-lehiaketa antolatu zuen HIRUKAk, Eroski Bidaiak-en laguntzagaz. Uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean 107 argazki jaso genituen, 43 parte-hartzailearenak.

Ostean, sariduna herri-bozketaz aukeratzeko epea zabaldu genuen, eta irail osoan aukera egon zen gustukoen argazkiei botoa emateko. Horrenbestez, urri hasi berri honetan, boto gehien jaso dituen argazkia eta egilea ezagutarazteko ordua heldu da.

Jasotako 921 botoetatik, gehien batu dituen argazkia, 95 boto, «Hiriaren jabea» izenburukoa izan da, eta horren egilea, Ibai Maguregi. Bigarren lotu da egile beraren «Balunga eguzkia hartzen» irudia, eta hirugarren, «Otsoen uhartea», Iraide Olalderena. Sari bakarra egonda, lehenengoak eroango du; 1.000 euroko balioa duen bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian. Bejondeizula, Ibai! ◀



Azaroaren 11ra arte aurkeztu ahal dira ikus-entzunezko lanak.

Ikus-entzunezko lanak bereizkeriaren kontra

Beldur Barik Jarrera! lehiaketa-ren 6. edizioa antolatu du Beldur Barik programak. Lehiaketan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatzen dira. Kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da: nesken ahalduntzetik abiatuta gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa, matxismoaren aurka. Lehiaketa horretan, EAEko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, kategoria bitan: 1. kategoria, 12-17 urte bitartekoa; 2. kate-

goria, 18-26 urte bitartekoa. Banaka zein taldeka parte har daiteke, eta taldeko norbaitek 18 urte baino gehiago baditu, egitasmoa 2. kategorian sartuko da zuzenean. Lan denak ikus-entzunezko formatuan aurkeztuko dira, bideo-plataforma baterako esteka bat jarritz (Youtube edo Vimeo); azaroaren 11 baino lehen aurkeztu beharra dago.

Aurten, gainera, Erandion Herriaren Saria ere egongo da. Sari hori kategoria bietako edozeinetan aurkeztutako lanei emango zaie, eta herri-bozketaren bidez hautatuko dute. Botoa emateko epea azaroaren 21etik 25era izango da; beraz, adi egon! ◀

info+: www.beldurbarik.org / www.erandio.net

Menu bereziak eta bisita gidatuak egongo dira urrian

Uribe Kosta mundu gastronomikoan murgilduko da urrian. Izan ere, eskualdeko hainbat jatetxe eta ekoizleek euren proposamen gastronomikoak eskainiko dituzte, Jata-Ondo elkarteak antolatutako jardunaldien barruan. Ekimenaren hirugarren edizioa da, eta hilaren hasieratik amaiera arte, jatetxeek propio jardunaldietara-

ko prestatutako menuak eskainiko dituzte, tartean Lemoizko Begotxu eta Urdulizko Ayoberri sagardotegia dauka. Era berean, txakolinaren garrantzia alde batera utzi barik, ardo horren inguruko bisita gidatuak egingo dituzte Plentziako itsaspeko upeltegira, besteak beste. Aurten ere, Txakolibusak hainbat irteera antolatuko ditu. ◀



Emakumeen Mundu Martxa ez du eten ezta eguraldiak ere, eta euripean bazen ere, eskualdeko ehunka emakumek (eta hainbat gizonek) martxoan hasitako karabana feministari ondoetorria eman zioten joan den urriaren 4an, Getxon.

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902-103 763

❖ kartelgintza



❖ inprimategia



❖ kopisteria





Panta Rhei taldearen *Astokillo Circus* lanak zabalduko ditu Getxoko Antzerki Jardunaldiak. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Lehenengo aste-akabuko saioak

Urriak 10, zapatua

13:00 *Astokillo Circus* (Panta Rhei Antzerkia), Algortako San Nikolas plazan. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: doan.

20:00 *Barro rojo* (Javier Liñera), Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

Urriak 11, domeka

13:00 *Kolore* (Gari, Montxo eta Joselontxo), Algortako San Nikolas plazan. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: doan.

20:00 *Tipos de tipas* (Lalulu Teatro), Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

Urriak 12, astelehena

13:00 *Gelajauziak* (Kukai Dantza), Algortako San Nikolas plazan. Dantza. Adin guztientzat. Doan.

18:00 *Pulgarcito* (Teatro Paraiso), Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 6 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

info+: www.getxo.eus

Antzerkia: plaza eta aretoan

Urriaren 10etik 18ra, asteburu bietan, egingo dira Getxoko Antzerki Jardunaldiak; Algortako San Nikolas plazan eta Areetako musika-eskolan izango dira saio nagusiak.

Hamar ikuskizun nagusik osatuko dute Getxoko 33. Antzerki Jardunaldien egitaraua. Agertoki bi egongo dira: kaleko ikuskizunak Algortako San Nikolas plazak hartuko ditu, eta doan izango dira, eta gainontzekoak Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango dira, ordainduta.

Hala, helduentzako eskaintzak antzezlan hauek hartuko ditu: *Barro rojo*,

kontzentrazio-esparru bateko preso homosexual baten bizipenak kontatzen dituen istorioa; *Tipos de tipas*, antzerkiaren isilpeko kontuen inguruko lana; eta *Kreditua*, bankuak dirua ukatu dion gizon baten istorioa. Ikusle denentzako kale-antzerkia ez da faltako: *Gelajauziak* dantza-saio bizia; *El suceso*, ilusionismo psikologikoaren ikuskizun elkarreragilea; eta *mOrse*, dantza, zirkua eta antzerkia batzen

dituen lana. Bitartean, umeek aukera edukiko dute bi kale-ikuskizunez gozatzeko: *Astokillo zirkus*, aktoreen lana eta tamaina handiko txotxongi-loak oholtzan elkartzen dituen; eta *Kolore* pailazo-ikuskizuna. Umeentzako eskaintza biribilduko dute *Pulgarcito* antzezlanak, Perraulten ipuin klasikoaren moldaketa eguneratuak, eta *Pinotxo txikia* obrak, Carlo Collodiren pertsonaian oinarritutako operak.

Antzerki arina

Aurten, gainera, antzerki arineko egitaraua egongo da bigarren biderrez. Guztira, gehienez 20 minutu dirauren

hamar saio antzeztuko dituzte. Lan denak Algortako kultur etxean izango dira, hilaren 11n eta 18an.

Amaitzeko, gogoratu beharrekoa da Udalak bultzatutako zurrumurruen kontrako estrategiak hedatzen dituen baloreei atxiki zaizkiela aurtengo Antzerki Jardunaldiak. «Horren bitartez, kultura arteko eta estereotipo negatibo edo aurreiritzirik gabeko Getxo baten aldeko apustua egin gura da», adierazi dute antolatzaileek. Hori horrela, hilaren 10ean, 11n eta 17an bakarrik egongo dira, 19:45ean, Areetako musika-eskolan, eta sarrera doan izango da. ◀



ArgiHizkiak lehiaketaren erakusketa abitzeagaz batera, Mikel Illarregi leitzarrak eta Alba Garcia bilbotarrak sari nagusiak jaso zituzten, urriaren 1ean Kultur Leioan egindako ekitaldian. Erakusketa osatzen duten argazkiak eta testuak bertan egongo dira ikusgai, 18ra arte.

Bosgarren urtez, haiku poemen lehiaketa antolatu du Erandioko Euskara Zerbitzuak

Jatorriz japoniarra, hiru bertso-lerrotan antolatutako poema txikia da *haiku* izenekoa; hurrenez hurren, bost, zazpi, bost silabako bertso-lerroak dituen. Lehiaketan parte hartu gura duenak gehienez hiru *haiku* bidal ditzake, eta adina adierazi beharko du. Maila bi bereiziko dituzte: 18 urtetik beherako lagunak, eta hortik gorakoak. Abenduaren 4ra arte dago parte hartzeko aukera. Sariei dagokienez, liburu-irakurgailu elektronikoko bat egongo da, kategoria bakoitzeko. ◀

info+: 944 890 128
euskara@erandioko-udala.net

Antonio Zambujok Leioan eman behar zuen kontzertua bertan behera geratu da

Bariku honetan, urriak 9, Kultur Leioan eman behar zuen kontzertua Antonio Zambujok. Baina, arazo pertsonalak direla eta, bertan behera utzi behar izan du saioa abeslari portugaldarrak. Horrek ekar dezakeen kaltea kontuan hartuta, sarrera erosi duten pertsonen Kultur Leioako beste ikuskizunen bat ikusteko aukera eskaini diete bertoko arduradunek. Sarrera itzuli gura duten pertsonen txarteldegian egin ahal izango dute; bertan dirua bueltatuko zaie. Kutxa-bank sarean eta Kultur Leioako webgunean erosi dutenei kontu-korrontean sartuko zaie zuzenean. ◀

GETXO

Kukaiaren dantza-saioa, ikusgai Algortan

Getxoko 33. Antzerki jardunaldien barruan, astelehenean, urriak 12, *Gelajauziak* kale-ikuskitzuna eskainiko du Kukai Dantza Taldeak, Algortako San Nikolas plazan. Hitzordua 13:00etan izango da, eta sarrera, doan. Hala, elementu berri eta berezi ugarik zipriztindutako proiektua aurkeztuko du Kukaik. Kalea topagune bihurtuta, euskal konpainiak eta

Cesc Gelabert koreografo ospetsuak herri-dantzei begirada berri bat emateko indarrak batu dituzte.

Dantza zein kultura tradizionalak gaur egungo gizarte eta arte-munduan duten zereginaren gaineko go-goeta eginez abiatu zuten euren harremana Jon Mayak eta Cesc Gelabert koreografoek. Herri-dantza bi oinarri hartuta, gizartearekiko atxikimendu

dua, bat-batekosuna eta beste zenbait kontzeptu lantzen dituzte.

Errenterian sortu zen, eta bertan egiten du lan Kukai dantza-konpainiak; Jon Maya dantzari eta koreografoaren ekimenez eratu zen, 2001ean. Euskal dantza tradizioaletik abiatuta, beste arte-jarduerakaz, dantza-eskualakaz eta pentsamoldeakaz elkarlana bultzatzen du Kukaik. ◀

2015/10/08 - 2015/10/12	2015/10/10 - 11:00etatik aurrera
Umeentzako plastilina tailerra Hainbat herri Uribe Kosta Euskaraz OIgetan egitasmoaren barruan. Urriaren 8an Plentziako Ontziola plazan (17:30), 9an Urdulizko Antsonekoa plazan (17:30), 10ean Gorlizko Ibarreta plazan (12:00), 11n Larrabasterrako Urgitxeta plazan (12:00), eta 12an Armintzan (17:00). Doan.	Alde Hemendik Eguna Villamonte plaza (Algorta) Getxo Herri-apainketa, bazkaria (5 euro) eta Estricallaren kontzertu ibiltaria egongo dira.
2015/10/08 - 19:30	2015/10/10 - 13:00
Islandia: Vatnajökull dokumentala eta berbaldia Kurtzio kultur etxea Sopela Luismi Egiluz, Koldo Orbegozo eta Francis Diez esploratzaileen abentura. Gaztelaniaz. Doan.	Omenaldia Andoni Hernandezi Plaza Gorria Leioa Irailaren 12an hil zen Andoni Hernandez ibarluzea iheslari politiko leioaztarra.
2015/10/09 - 2015/10/18	2015/10/10 - 19:00
Extremadurako Etxearen Kultura Astea Getxo kalea, 3 (Astrabudua) Erandio Besteak beste, musika-emanaldiak, jolasak, bazkariak eta azoka egingo dituzte. Doan. Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda	La isla minima filma Berango Antzokia Berango 16 urteik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan.
2015/10/09 - 17:30-19:00	2015/10/10 - 20:00
Ludoteka Udal liburutegia Barrika 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Doan.	La casa de Bernarda Alba antzezlan Kurtzio kultur etxea Sopela Gorlizko Antzerki Eskolako ikasleek antzeztuta. Gaztelaniaz. Sarrera doan.
2015/10/09 - 18:00-20:00	2015/10/11 - 10:00-14:00
Kirolean ere euskaraz! ekimena Udaletxe aurreko plaza Sopela Aitxul: euskara-taldeak antolatuta. Hainbat kirol egiteko aukera egongo da. Doan.	Motor-ibilbidea, Kantabriatik Karl Marx, 17 (Astrabudua) Erandio Parte-hartzea, libre.
2015/10/09 - 18:30	2015/10/11 - 18:00
Begoñako galerietarako bisita gidatua Begoñako galeriak (Algorta) Getxo Gaztelaniaz. Doan. Erreserbak: 944 910 800	Chef pelikula Berango Antzokia Berango Edozein adinetako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
2015/10/09 - 19:00	2015/10/13 - 19:30-21:00
Ahaztuak 1936-1977 elkartearen berbaldia Kurtzio kultur etxea Sopela Meñakoz Kultur Elkarteak antolatuta. Martxelo Alvarezek egingo du berba. Gaztelaniaz. Doan.	Argazki-kritikaren eskola Atxutegi Kalea, 15 (Astrabudua) Erandio Astrabuduko Fotoclub elkarteak emana. Doan.
2015/10/09 - 19:00	2015/10/13 - 20:00
Kontularien Klubaren ikasturte hasiera Villamonteko kultur etxea (Algorta) Getxo Ipuin-kontalariak izan edo entzun gura dituzten helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.	Vivir sin parar pelikula Kultur Leioa Leioa 7 urteik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.
2015/10/10 - 2015/10/18	2015/10/14 - 19:30
Getxoko Antzerki Jardunaldiak	El ultimo magnate dokumentala Begoña galeriak (Algorta) Getxo Euskaraz. Sarrera doan. Erreserba udal webgunean (www.getxo.eus) edo Turismo Bulegoaren telefono-zenbakian (944 910 800) egin daiteke.
	2015/10/14 - 20:00
	Txorimaloren 10. urteurrena antolatzeko batzar irekia



Sarritik Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Milaka fenomeno berri behar dugu

Euskaltegiatako matrikulario-kanpainaren amaieran gauden honetan, Izan fenomeno! izeneko bideoa ikusi dut sarean. Ikaragarria!!! Bertan, bere burua euskaldundu duen gizon bat Iruñeko kaleetan barrena doala, hainbat herritar anonimok zorionak eta eskerrak ematen dizkiote. Hori guztia kamera ezkutuaren bidez grabatuta. Amaieran, herritar andana hurbiltzen zaio «euskaraz bizi nahi dut» eta «Fenomeno zabiltza» txartelak eskuetan.

Bai, halaxe da. Azken hamarkada hauetan milaka eta milaka herritarrek erabaki dute beren burua euskalduntzea eta hautu horri determinazioz eutsi diote. Izan ere, hizkuntza bat berreskuratzeko bada ez da nahikoa indarra belaunaldi berrietan jartzea. Belaunaldi berriek erreferenteak behar dituzte, erreferente helduak, euskaraz normaltasunez bizi direnak hain zuzen ere. Beren burua euskalduntzea erabaki duten herritar horiek milaka ordu eta milaka euro inbertitu behar izan dute helburua erdiesteko. Egia esan, milaka ordu horiek ezin dira saihestu ez bada hizkuntza gaitasunak ematen dituen pilula bat asmatzen. Halere, sumindu egiten nau herritarrek berezko hizkuntza ikasteagatik milaka euro ordaindu behar izanak.

Eta, egia da, herritar horiek ha- maika arrazoi izan dutela beren burua euskalduntzeko. Seme-alabekin euskaraz bizi ahal izateko, motibazio indentitarioengatik, izan ere, kankak zioen bezala euskararik gabeko herria irinik gabeko ogia da, eta baten batek euskara ikasteak bizitzan abantailak eskainiko zizkiolakoan.

Akaso, azken horri behar bezala ekiteko garaia iritsi da, eta motibazio instrumentala jorratu beharko lukete instituzioek. Niri adibide bat datorkit burura: Hemendik aurrera administrazioan lan egiteko, eta, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa balitz, baietz euskaltegiak bete!!!

Topa Eguna joateko autobusa, Getxotik



Iazko herri-bazkaria, Derion. TOPAGUNEA

Euskaltzaleen Topaguneak Lasarten egingo du urriaren 17an, zapatua, Topa Eguna laugarren edizioa. Hala, bertara joateko autobusa antolatu dute Uri-

be Kostatik ere. Garraioa Getxotik ir- tango da, eta ondoren hainbat herritan geldialdia egingo du bidean. Ondokoa izango da ibilbidea: Getxo, Derio, Bil- bo, Durango, Elgoibar eta Lasarte-O-

ria. Abiatzeko ordua ez dute zehaz- tu oraindino; aurrerago jakinaraziko dute Topaguneko arduradunek. Hala ere, daborduko autobuserako txarte- lak 10 euroan eskura daitezke, e-posta bidez; izen-abizenak eta busa zein he- rritan hartuko duten zehaztu beharko dute izena ematen dutenek.

Ttakun Lasarte-Oriako euskaltza- leen elkarteak antolatzen duen Eus- kal Jaigaz bat egingo du aurtengo Topa Eguna. Horrenbestez, herritarrek sor- tu ohi duten jai giroaz bat egingo dute Euskal Herriko beste txokoetatik ber- taratuko diren euskaltzaleek, Topa- guneak adierazi duenez. Jaiegun par- te-hartzaile eta gozagarria izatea gura dute. Besteak beste, kantu-jira, herri- bazkaria, Irrien Lagunak eta Eztengiro taldearen erromeria egongo dira. ◀

izen-ematea: manuel@topagunea.org

Ahotsenean izena emateko epea zabalik dauka Durangoko Azokak

Aurtengo sortutako lan berria aur- keztu gura duten lagunek le- kuak bete arte edukiko dute Ahotsenean izena emateko aukera. Durangoko Azokako gainerako espa- zioek irailaren 21ean zabaldu zuten inskribatzeko epea; urriaren 16ra arte luzatu dute. Aurreko urteetan legez, Ahotsenean izena emateko baldintza bi baino ez dira behar: aurkeztutakoak euskaraz sortutako lanak izatea, eta 2015ean argitaratutakoak izatea.

Azokako gainerako guneetan ez bezala, Ahotsenean parte hartzeko eskaerak e-posta bidez egin beharko dira; eskaera egitean ahotsenea.du-



© AHOTSENEA.

rangokoazoka.eus webgunean eskura- gai dagoen fitxa teknikoa beteta atxiki beharko da. Lanak zuzenekoan (kon- zertua) edo solasaldien (solasa, erre- zitaldia, performancea, akustikoa...) ◀

bidez aurkeztu ahal izango dira. Sor- tzaile bakoitzak 30 minutu izango ditu aurkezpen bakoitza egiteko.

Durangoko Azokaren baitako sor- tzaileen gunea da Ahotsenea. 2008an abiatu zuten, azokaren 43. edizioan. Bertan, irakurleek eta entzuleek ere badute bere lekua. Gune bi ditu: ba- tetik, argitaratutako lanaren inguruko azalpenak eskaintzen dizkiote sortzai- leek bertaratzen direnei; eta bestetik, liburu zein diskoa zuzeneko emanal- dien bitartez aurkezteko aukera es- kaintzen du Ahotsenea. ◀

izen-ematea: info@ahotsenea.net
argibideak: 615 705 852

Erabat berrituta dator aurtengo Banden Lehia musika-sariketa

Banden Lehia izeneko musika-sa- riketaren zazpigarren edizioan izena emateko epea zabalik dauka Azkue Fundazioak. Antolatzaileek azaldu dutenez, Interneteko eus- kal musika talde amateurrik entzute- tsuena saritzea da horren helburua; eta aurtengo edizioan, inoiz baino sari desiragarriagoak egongo dira. Banden Lehiako talde irabazleak 2016ko Bil-

bao BBK Live eta Bartzelonako Euskal Herria Sona jaialdietan joko du; eta gainera, disko bat ekoitziko du. Anto- latzaileek azpimarratu dutenez, «Ban- den Lehia erreferentziazko lehiake- ta bilakatu da euskarazko musikaren alorrean. Aurtengo edizioa guztiz be- rrituta dator». Urriaren 13ra arte izena eman daiteke. ◀

info+: www.bandabeat.eus

Urriaren 14tik 27ra erakusketa egingo du Garrobik, Algortan

Urriaren 14tik 27ra bitartean, Garro- bi Arte-kultura Elkarteak bultza- tutako talde-erakusketa ikusgai egon- go da Algortako Villamonte kaleko kultur etxean. Hala, bere lana eraku- tsi gura duen edonori ateak zabaldu- ko dizkiote *Gu Gara Garrobi* izenburu- ko erakusketa. Inaugurazio-ekitaldia 14an bertan egingo dute, 19:00etan. ◀

info+: info@garrobi.com

Del 1 al 31 de Octubre
Urriaren 1etik 31ra



III. Octubre Gastronómico de Uribeko III. Urri Gastronomikoa

Menu bereziak / Menús especiales • Bisitak / Visitas • Ekitaldi gastronomikoak / Eventos gastronómicos • Tailerrak / Talleres
Dastaketak / Degustaciones • Eta askoz gehiago / Y mucho más

Informazio gehiagorako / Para más información:
Eskatu zure liburuxka / Pide tu folleto

ADR JATA-ONDO LGE

Gamiz Bidea, 30. 48100 Mungia. Tel.: 946 156 612
jataondo@jataondo.org
info@uribe.eu



Jatetxeak / Restaurantes

BIRJILANDA TABERNA [Bakio]
Menú I.: 19€ / Menú II.: 16€ / Tel.: 946 194 750

GOTZON JATETXEA [Bakio]
Menú: 44€ / Tel.: 946 194 043

LA BAKIENSE [Bakio]
Menú: 40€ / Tel.: 946 194 232

RESTAURANTE BEGOTXU [Lemoiz]
Menú: 28,60€ / Tel.: 946 879 053

HOTEL LOIU / RESTAURANTE ELEIZPE [Loiu]
Menú: 27,66€ / Tel.: 944 535 038

RESTAURANTE ASPALDIKO [Loiu]
Menú: 49,50€ / Tel.: 944 531 421

ASADOR AURREKOETXE [Mungia]
Menú: 30€ / Tel.: 946 155 931

HOTEL PALACIO URGOITI [Mungia]
Menú: 28€ / Tel.: 946 746 868

RESTAURANTE IZARZA [Sondika]
Menú: 29€ / Tel.: 944 538 273

AYOBERRI SAGARDETEGIA [Urduliz]
Menú: 25€ / Tel.: 946 764 257

Jarduerak / Actividades

**TXAKOLINAREN HARTZIDURAREN AMAIERARI BURUZKO TAILERRA
TALLER SOBRE EL FINAL DE FERMENTACIÓN**
Doniene Gorronzona Txakolina [Bakio]
23 Octubre / 8€ / Tel.: 946 194 795

**"KANTAURO KONTSERBAK ETA BAKIOKO TXAKOLINAREN
MARIDAJEA" IÑAKI SUAREZ SUMILLERREN ESKUTIK + BISITA GIDATUA
TXAKOLINGUNERA**
"MARIDAJE DE CONSERVAS DEL CÁNTABRICO Y TXAKOLI DE BAKIO" DE
LA MANO DE IÑAKI SUAREZ + VISITA GUIADA AL TXAKOLINGUNEA
Txakolingunea [Bakio]
24 Octubre / 11:30 h. / 10€ / Tel.: 946 028 513 / 946 193 395

HAUR GOZOGINTZA TAILERRA. TALLER DE REPOSTERÍA INFANTIL
Sopelako Batzokia [Sopela]
Sábados de Octubre / 17:30 a 19:30 h. / 5€ / Tel.: 946 025 151

URPEKO UPATEGIA. BODEGA SUBMARINA
Bodega Crusoe Treasure [Plentzia]
Octubre / 95€ / Tel.: 944 015 040 / 647 693 476

KOKEDAMA TAILERRA. TALLER DE KOKEDAMA
Agroturismo Iabiti Aurrekoa [Zamudio]
30 Octubre / agroturismo.iabiti@gmail.com

GARAGARDO DASTATZEA. CATA DE CERVEZAS
Bekoabadene landetxea [Meñaka]
15 Octubre / 5€ Cata / 35€ Cata + 1 noche AD / Tel.: 635 008 808

TXAKOLIBUS: EGUN OSOKO TXANGO / EXCURSIÓN DÍA COMPLETO
10 Octubre / Desde Vitoria-Gasteiz: Adultos 28€ / Jóvenes entre 11 y 17 años y mayores de 65 años 18€ / Hasta 10 años 5€ / Desde Bilbao y Mungia: Adultos 23€ / Jóvenes entre 11 y 17 años y mayores de 65 años 15€ / Hasta 10 años 5€ / Tel.: 945 157 914

Azokak / Ferias

URRIAK 3 OCTUBRE. Agrícola y Artesana [LAUKIZ].

URRIAK 4 OCTUBRE. Agrícola [ARRIETA].

URRIAK 4 OCTUBRE. Ganadera [MUNGIA].

URRIAK 11 OCTUBRE. Enológica [SONDIKA].

URRIAK 12 OCTUBRE. Micológica [GORLIZ].

URRIAK 17 OCTUBRE. Agrícola y Artesana [LEZAMA].

URRIAK 18 OCTUBRE. Gastronómica y Artesana [LOIU].

URRIAK 18 OCTUBRE. Ganadera [MUNGIA].

«Dokumentalak bidegabekeria ikusgarri egiteko aukera ematen du»

Yanilu Ojeda Alcantara (Maracaibo, 1977) zinema-dokumentalista venezuelarra Uribe Kostan egon da egunotan, campusean eta Algortan egindako «Zinema indigena: erraietatik so» jardunaldiari esker. Nazioartean hainbat sari jaso ditu Ojedak. Gurean, zabal egin du berba, duintasunez, zinema indigenaren hizkuntzaz, justiziaz eta zinema-dokumentalak komunitate indigenetan izan duen garapenez. Gainera, *Shawantama'ana* bere filmetako bat aurkeztu du.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Zelan hasi zinen zinemagintzan?

Istripuz, gauzak onak gertatzen diren legez. Gizarte-komunikazioa ikasi nuen Zuliako Unibertsitatean, Maracaibon, eta zineman hasi nintzen unibertsitateko lagun batzuk film laburrak egiten hasi zirelako. Garai hartan, argazkilaritza ikasten nuen beste eskola batean, eta lagun batek esan zidan: «gustatzen zait argazkilaritza zer egiten duzun, eta gura nuke nire film laburraren argazki-zuzendaritza zuk egitea». Erantzun nion: «baina nik ez dut egiten zinemarik, ezta bideorik ere». «Baina badakit egin dezakezula». Horrela hasi nintzen kamerari: istripuz. Dokumentalena, beranduago heldu zitzaidan, ikasten jarraitzen nuela. Gizarte-gaietan fokua jartzeari ekin nion; argazkilaritza-dokumentala egitea gustatzen zitzaidan.

Eta zergatik aukeratu zenuen dokumentala?

Bidegabekeria asko dagoelako. Eta tresna horrek aukera ematen du gertatzen diren gauza horiek ikusgarri egiteko. Dokumentalak gizateriari eskaintzen dio memoria gordetzeko aukera, eta hori zoragarri iruditzen zait. Venezuelan jendea ez da ezertaz gogoratzen: kontuak joan eta kontuak etorri, jendeak ahaztu egiten ditu, eta dokumentala kontuak presente mantentzeko bitarteko ederra delakoan nago, gal ez daitezen.

Zer ikusten duzu kameraren atzetik?

Kontu nahiko pertsonala da. Kameraren atzean egoitea gustatzen zait, zelanbait ezkutatzen naizelako,

bidegabeak eta mingarriak diren kontu horien gainean jarri ahal izateko: ikusi eta bidera ditzaket. Nire tresna da kamera, gauza horiek garraiatzeko. Kameraren atzetik, bizitza ikusi eta sentitzen duzu: bertan negar egin dut, hunkitu egin naiz, barre egin dut negar egiteraino. Dokumentalak hori eskaintzen du: lanbide izan dezakezu, gizaki izateari utzi barik, gero eta sentikorrago bihurtzen baitzaitu. Horrek motibatzen nau bertan egoten, lanbide horrek soldata eta errekonozimendu gutxi izan arren.

“ Kontu mingarria zen oso: komunitatea, umearen familia, eta bala-zuloz jositako kamioneta ”

Kezka sorrarazten dizu erretratatu gura duzun jende horrek, azkenean, dokumentalerako posatzeak?

Ez. Gure metodologiari jarraitzen badiogu, ez. Itxaron egiten dugu jendeak posatzeari utzi arte. Gizaki denok antzezten dugu, norbait berria edo leku berri bat ezagutzen dugunean. Bizitza antzerki hutsa da. Baina une jakin batean antzezlanaren amaitu egiten da, oihala jausi egiten da, eta jendeak ekiten dio den bezala jokatzeari. Eta nik denbora hori guztiori itxaro-

ten dut, beharrezkoa dena, jendearen araztasun hori topatzeko.

Zein historia izan da zuretzat hunkigarriena?

Egin ditudan dokumental denak gustatzen zaizkit. Halere, une zehatzei dagokienez... Nire herrialdearen eta Kolonbiaren arteko mugan, Apuren egon nintzen. Ume berezientzako eskola bati buruzko dokumental bat egitera joan nintzen hara. Heldu baino lehen, aurreko egunean 16 urteko ume bat hil zuten herriko plazan, arrastian. Hori topatu nuen heltzean, eta ezin nuen, beste barik, eskolaz bakarrik berba egin. Hori dela-eta, gaia aldatu genuen. Dokumentala egiteari ekin nion, gertatzen zen hartaz. Gerora, *El otro lado del Rio* (Ibaiaren bestaldea) izango zen filma, mugan gertatzen denaren ingurukoa. Paramilitarren esku-hartzea, eta ELNena eta FARCena ere kontatzen du, eta zelan eragiten dion Kolonbiako gatazka militarrek Venezuelako aldeari.

Apaizaren etxean nenbilen, eguerdia zen. Gerillariak deituko ninduketelako beldur nintzen, elkarriketaren bat egiteko; batzuetan hala jokatzeko baitute. Telefonoak jo zuen, baina ez ziren *gerilloak*, komunitateko jendea baino, kazetariarengatik galdezka. Izan ere, beste ume bat hil zuten, oraingoan armada venezuelarrak. 14 urte zituen eta esnea zeroan. Komunitateak ez zion armadari autoa eroaten, hori zelako umea hil zutela esateko zuten azken frogak; militarrek eszena garbitu baitzuten aurretik, erratu zirela eta ume bat hil zutela konturatu ostean.



Yanilu Ojedaren filmografia

Mea culpa (2000)

Potero, latero, recoge latas (2001)

La estatua viviente (2001)

Hijos de la tierra (2002)

Yo soy Luis Teran (2003)

Los lienzos del pueblo (2004)

Al otro lado del Rio (2005)

El hospital (2005)

El terminal de pasajeros de Maracaibo (2006)

El noticiero indígena, 32 erreportaje (2004 eta 2006 bitartean)

Alirio Diaz corazon de guitarra (2008)

Shawantama'ana (2012)

Atrapados (2014)

Herritarrek eskatu zuten kazetaria hara joan zedin, eta heldu nintzenean, komunitate osoa zegoen zain.

Kontu mingarria zen oso: komunitatea, umearen familia, eta bala-zuloz jositako kamioneta. Horrek markatu egin ninduen erabat. Odol hotzean jokatu nuen, eta nire posizioa finkatzeko baliagarria egin zitzaidan.

Vive TVn egin zenuen lan, Venezuelako Gobernuak bultzatutako dokumentalak egiten, iraultza bolibarrarraz autokritika egiteko. Ondo baloratu zen autokritika eta gizarte-kritika hori?

Gauzak bereizi behar ditugu. Ni kameraria eta argazki-zuzendaria izan naiz, eta horrek zinemaren mundu harroputzera lotzen nau, baina, aldi berean, dokumentalista naiz. Dokumentalak egiten baditut, nire lanbideak posizio bat hartzen behartzen nau, beti. Ezin dugu artista legez definitu geure burua. Nire posizioa daukat, eta onartu egin behar dut.

Horrela jardun nuen, kritika egiten. Hori dela-eta, telebista-kate horretatik bota ninduten bidegabei, eta auzitara eraman nituen. Ikatzen ustiapenez berba egiteagatik kaleratu ninduten, eta garai hartan, horretaz ezin zen hitz egin. Eta ni indigenen alde agertu nintzen, hori zelako haiek kontatu gura zutena. Ni ez nengoen han beste ezer egiteko. Telebista-saio bat sortu genuen indigenei ahotsa emateko; baina, momentu batean Estatuak, beste edozein estatu legez, iraultzagaz ala iraultza barik, esan zuen: «hau da marra». Onar nezakeen marra, eta neure burua

traizionatu. Ezta pentsatu ere! Nik ez nuen horrela jokatu; ez nituen traizionatu nire lankideak, sinistu zutenak indigenek ere euren lanak egin zitzaizketela, gaur egun gertatzen den legez. Eta bota ninduten. Lana galdu nuen (kar, kar, kar).

Zure lanean, garrantzi handia du indigenen gaiak, baina zu ez zara indigena. Gaztetan hartu duzun kausa da, ala errealtateak jarri zintuen hor?

Errealtateak jarri ninduen. Indigenen kontzientzia

“ Kaleratu ninduten ikatzaren ustiapenez berba egiteagatik, eta garai hartan ezin zen horretaz hitz egin ”

berandu izan nuen, nahiz eta bizi naizen hirian nire bizitza osoan wuayuuak ikusi ditudan. Beti ibili dira mantakaz; etxeko beharrak egin eta garbitzen dutenak indigenak izan ohi dira han. Baina horrek inoiz ez ninduen sentibilizatu, Vive TVn beharrean hasi nintzen arte. Aurretik ere dokumentaletan lanean nengela, bidegabekeriak ikusi nituen, emakume indigenek pairatutakoak eta abar, baina ez neukan sentibilitate hori. Baina behin sartu ondoren, ez

naiz atera. Leiki Uriana nire lagunik onena wayuua da, eta beti sartzen diot ziria: «amatxok esaten zidan, ‘ez nahastu indio horiekaz’» (kar, kar). Egin ditudan lanen artean, bakarra da wayuu komunitateari buruzkoa: *Shawantama'ana* (Itxaron gunea).

Zinema dokumentalak eta telebista-saioak egiteaz gainera, urteak eman dituzu tailer eta ikastaroetan emakume eta indigena elkarrekin zinema mundua partekatzen. Zer ekarpen egin dizu horrek?

Egin dugun formazio-lan hori nire eskola izan da. Inoiz ez dut zinema ikasi. Dakidana bilatu izan dut, bizitzan. Gizarte Komunikazioko Eskolan bizpahiru katedra daude zinemaz, baina nik bilatu egin nuen. Ikasketa formaletan ez dudanez sinisten; uste dut tailer horiek egiten ditudala gauza bat frogatzeko: bestela badirudi ere, ezagupen tekniko eta teoriko gutxiagok zinema egin daitekeela, adierazpidea delako. Tailer bat egin eta emaitzatzat lan politik, ederrak edo gogorrak ditugunean, frogatzen gabil-tza edozein pertsonak istorio bat konta dezakeela. Gizakiak beti kontatu du zerbait, izan erreala edo asmakizuna, eta kontatzeko beharra du. Era berean, neure burua behartu dut ondo dokumentatuta egoten, jendeagaz berba egiteko. Eztabaidetan, gauza asko erakusten dizu jendeak, eta horrek zure ikuspegia zabaltzea bermatzen dizu. Niretzat, esperientzia zoragarria da. Aukera izan dut tailerrak emateko Guatemalan, Kenyan... indigenakaz... Askatzeko modu bat ere bada hori. ◀

Euskara eta kirola gehiago lotzeko, hitzordua ipini dute barikuan Aitxu! euskara-elkarteak, Sopelako Udalak, Mankomunitateak eta Serviociok.

Sopelan, kiroldegian ere euskaraz

Bariku honetan, hilak 9, kirola eta euskara uztartzeko ekimena egingo du Aitxu! euskara-elkarteak Sopelan. *Kirolean ere euskaraz!* goiburupean, *body combat*, *sh bam*, pilates, *body balance* eta *body pump* diziplinez gozatu ahal izango dute sopeloztarrek eta Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten beste herrietako bizilagunek.

Aipatutako kirol horiek euskaraz disfrutatzeaz gainera, hamaiketako ere izango da, eta Sopelako kiroldegian sartzeko egun osoko sarrerak banatuko dituzte antolatzaileek. Eki-

menerako hitzordua Sopelako udaltxearen aurreko plazan ipini dute, Sabino Arana kalean, txanda bitan. Lehenengo txanda goizeko 11:30etik 13:30era izango da, eta Sopelako Ander Deuna ikastolako eta Plentziako institutuko ikasleek parte hartu ahal izango dute bertan. 18:00etan txanda irekia izango da. Aitxu!-k deia egin die ikasleei eta beste herritarrei: barikuan «kiroldegitik kanpora atera gaitezen gogoz buruan zinta jantzita, oinetan kirol-zapatak, soinean elastikoa, eta euskara ezpainetan». Izan ere, Aitxu!, Mankomunitatea, Sopelako Udala, eta



2013ko irailean jendaurrean aurkeztu zuten *Kirolean ere euskaraz!* ekimena.

kiroldegia zen zerbitzua esleitura duen Serviocio enpresa elkarlanean dabil-tza, «kirol mundua ere euskalduntzeko ahaleginean». Euren ustez, «zeregin horretan denok daukagu konpromisoa, ahal dugun guztietan euskara erabili, indartu eta bultzatzeko».

Gaur egun, kiroldegian bada euskarazko eskaintza zabala: «hainbat kirol-ekintza eta 14 monitore euskaldun, guztion eskura», *Kirolean ere euskaraz!* kanpainako antolatzaileek akordura ekarri dutenez. Halere, kontziente dira kirol-ekipamenduen erabiltzaile denek ez dakitela bertan eus-

kara erabil dezaketenik. Ekimena euskara-elkarteak abiatu zuen 2013ko martxoan, Udalgaz eta Serviociogaz batera. Apirilean, kiroldegiko erabiltzaileen artean inkesta bat banatu zuten, jarduerak euskaraz jasotzeko aukeraz galdetzeko, eta emaitza oso argigarria izan zen: inkesta bete zutenen %80k eskolak euskaraz jasotzeko nahia agertu zuten. Ordutik aurrera, hainbat neurri hartu dute: beharginak euskalduntzeari ekin zioten; adingabeen ikastaro denak euskaraz eskaini dituzte, eta areto-jardueren %50 baino gehiago ere euskaraz eman dituzte. ◀



Pasa den denboraldian, 800 bat eskola-laguntzaile izan ziren. © BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Eskola-laguntzaile izatera deitu du Leioak

Bizkaiko Saskibaloiko Federazioak ez ditu eskola-kiroleko lehiaketak abiatuko azaroaren 7ra arte, baina aurreko urteotan legez, oraindino ezinbesteko pieza bat falta zaie, lehiaketak egin ahal izateko: eskola-laguntzaileak, txikien partidak epaitu eta aktak idatziko dituzten arbitroak, alegia. Euren ekarpenaz gainera, laguntzaileek sari txiki bat izango dute denboraldia amaitzean.

Urriaren 15era arte

Bizkai osoan egiten den ekimen horretan izena emateko epe bera izango dute denek: lehen aldiz inskribatu gura dutenek zein txartela berritu gura dutenek. Daborduko euren burua aurkez dezakete denek, urriaren 15era arte. Horretarako, Federazioaren webguneko gaztelaniazko formularioa bete besterik ez dute egin beharko. Ondoren, Federazioak informazio-batzarra iragarriko du, eskola-laguntzai-

le denentzat. Topaketa horretan eskainiko dira beharrezko materiala eta aholkuak.

Leioan, deialdi zabala

Eskola-laguntzaile izateko izena emateko deialdia egin du Leioa Saskibaloiko Taldeak. Halere, zerbait gogorarazi die klubeko jokalariei: eskola-kiroleko partidak epaitzen edo aktak egiten laguntzea euren ardura ere badela denboraldi honetan, izan eskola-laguntzailea ala ez. Izan ere, klubek arduradunen bat ere jarri beharko dute: «zenbat eta jende gehiagok lagundu behar horretan, orduan eta errazagoa izango da egitea. Horregatik denok animatzen zaituztegu eskola-laguntzaile izateko». Horrela, «etorkizun oparoa duten gure txikien trebakuntzan lagundu» ahal izango dutela azpimarratu dute Leioa Saskibaloiko Taldeko kideek. ◀

Getxo Saskibaloiak, hirukoa!



Getxo Saskibaloiko sendia 21 taldek osatzen dute. © GETXO SASKIBALOI TALDEA

Getxo Saskibaloia Taldeko gazteek hirugarren garaipena eskuratu zuten, pasa den zapatuan Portugaleten. Kontuak horrela, orain arteko Bigarren Mailako partida denetan nagusitu, eta sailkapen orokorreko lider bihurtu dira mutilak.

Estreinaldia Miribillan jokatu zuten, irailaren 19an. Orduan, 33-74 sendo batez garaitu zitzaizkien Bakuva talde bilbotarraren jokalariei. Bigarren norgehiagokan, antzeko abantaila atera zuten getxoztarrek, 65-26 irabazi baitzieten La Sallekoei.

Pasa den urriaren 3an ere, Getxo Saskibaloia Taldeko gazteek markagailua euren alde ipini zuten, are eta

distantzia handiagogaz. Halere, 38-90 zenbakien atzean ez zen talde-lana ikusi, aurreko partiden joera apurtuz. Portugaleten, gutxi izan ziren elkarrengaz landutako jokaldiak, eta defentsak hainbat gabezia erakutsi zuen, Oribeltzaren eraso apalen neurrikoa, antza. Datorren aste-akabuan, getxoztarrek lehia bikoitza izango dute; partida biak, etxean jokatuko dituzte. Lehenengo erronka Munabe taldea izango da, zapatuan. Ikastetxe pribatu-koek partida bat gutxiago jokatu dute orain arte, garaipen eta porrot bana-gaz. Urriaren 12an, oster, Colegio Vizcaya izango dute aurrean. Hiru partidatik bakararra irabazi du talde horrek. ◀

info+: Getxosaski.com

David Movilla, Bigarren Bko liderra Barakaldon

David Movilla entrenatzaile itzultzetarra Espainiako Bigarren B Mailako sailkapenaren buru dabil, Barakaldoko taldeagaz batera. Zapatuan Arenas behin-behinean lehenengo postuan jarri zen arren, domekan Barakaldo bere lekura bueltatu zen, Gernikari 4-0 irabazita. Halere,

Movilla ez dago gustura, domekakoa «denboraldi honetan Barakaldok jokatutako duen partidarik txarrena» izan zelakoan. Ekainean hasi zen Barakaldon, eta igoerarako play-offa jokatzea ipini zioten helburu. Leioan, bederatzi urte eman zituen, eta taldea Bigarren Beraoatea lortu zuen. ◀



Urtebeteko kontratua du Movillak Barakaldoko futbol-taldeagaz. © LEIOA KIROL ELKARTEA



Solange Pereira portugaldarrak irabazi zuen Berangoko Nazioarteko Milia, pasa den zapatuan. Pereirak berretsi egin zuen iaz lortutako Simon de Otxandategiren garaikurra. Elian Perez eta Iris Fuentes-Pilar ere podiumera igo ziren. Gizonen artean, Carlos Alonso nagusitu zen. © BFA

Getxon 5.000 lagunek ekin diote kirolari

Getxo Kirolak udal erakundeak 2015-2016 denboraldia hasi du daborduko, eta orain arte 5.000 pertsona baino gehiagok eman dute izena kirol-ikastaroren batean. Izan ere, Fadura eta Gobela kiroldegietako eskaintza oparoa da: denera, 25 modalitatetako ia 360 ikastaro.

Zumba arrakastaz estreinatu da Azken denboraldietan gertatu ohi den moduan, herritarrek gehien eskutatako ikastaroak honakoak izan dira: estalpeko txirrindularitza, padela, pilatesa eta yoga. Era berean, aurren

estreinatu dituzten *zumba* ikastaroek ere harrera ona izan dute Getxo Kirolak-en erabiltzaileen artean.

Ikasturtea hasteagaz batera, daborduko bete dira eskaintak 5.580 plazen %85 inguru. Horrenbestez, oraindik interes dutenek izena eman dezakete jardueraren batean. Horretarako, abonatu-txartela beharko dute, kontsultak egiteko Fadura eta Gobela kiroldegietako jendearen arretarako bulegoetan edo Getxo Kirolak erakundearen webgunean. Bulego birtualean, nortasun-agiri elektronikoa edo pasahitza behar izango dute. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Kreditua antzerki-lana ikusteko 5 sarrera bikoitz dauzkagu

Urriaren 17an, zapatua,
20:00etan; Andres Isasi
musika-eskolan.

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez

Urriaren 13a baino lehen, helarazi
erantzuna, zure izen-deiturak
eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Urtebetetzea,
ezkontza zein
jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



UNAI
BERANGO
25 metro
kuadrillaren
partez

Berangoko gure artista hirugarren
hamarkadara gerturaten ari da...
ondo pasa eta hasi formaltzen,
badala sasoia! Musu bat!



IÑAKI
BILBO
Kuadrillaren
partez

Zorte handia opa gura diogu gure
soketan adituari... Zelako lokala!!
Primerako bistak!! Argazkitxo batzuk
ateratzen utziko didazu ezta? Musu!



MIGUELON
ALGORTA
Konporteko
lagunak,
Roi eta Max

Zorionak Miguelon!!! Asteartean denok
egongo gara zure zain Konporteko
tabernetan, sanmigelak barra-barra
zure urtebetetzean!

Sudokua

			4		1	6		
2		9						
	6							
3	8				7		1	
					6			
	1	2					7	3
1				6			8	
7				8			3	2
			5		9			

Gogoan hartu 1etik
9ra arteko zenbaki
denek agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

Soluzioa

4	9	1	6	7	5	3	2	8
2	3	5	4	8	1	9	6	7
6	8	7	3	9	2	4	5	1
3	7	6	5	4	8	2	1	9
8	5	2	9	1	3	7	4	6
9	1	4	7	2	6	5	8	3
5	6	8	2	3	7	1	9	4
1	4	3	8	5	9	6	7	2
7	2	9	1	6	4	8	3	5

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ahalegindu jaramon egiten errepidetik zoaze-
nean, batez ere ibilgailu bat gidatzen baduzu.
Besteek eskertuko dizute arduraz jokatzeari.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Azken boladan, ez zara sasoian sentitzen. Ondo
etorriko zaizu kirola egitea, buruan bueltaka ditu-
zun kezka horiek apur bat ahazteko ere bai.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Erosketak egitearen ondorioz, zure etxera hiru bat
poltsa sartzen ohi dira. Zaborra jaisten duzunean,
ostera, lau-edo daude. Zelan da posible?



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Badakizu kontu garrantzitsua zela: horregatik pa-
per batean idatzi zenuen, eta ez ahazteko modu-
ko leku batean gorde zenuelakoan zaude. Zer zen?



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Inurri-lana egitea egokitu zaizu berriro ere. Gutxi-
nez, atseginez eskatzerik bazuten, edo, amaitzean,
egindako beharra aitortu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Herriko plazak emango dizu zertaz gozatu dato-
zen egunotan. Aspaldian izan duzun elkarriketa
xelebreena izango duzu.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Berba hauek ez badituzu ondo ulertzen, agian ez
dituzu benetan ondo ikusten. Kontsultatu gaia
okulistaren bategaz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Kontuz ibili! Zure lagunen bat oporretatik itzuli be-
rri da, eta prest dago egin dituen ehunka argaz-
kiak zuri erakusteko.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Haizeak daroatza airea eta denbora. Baina horrek
ez du poztan garbitzailearen gogoia, hostoak alde
batetik bestera barreiatzen dituenean.




Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Uniformea polit-polita izan daiteke, baita funtzio-
nala ere, baina besoak altxatzean zilborra agerian
uzten badu, har egizu beste neurri bat.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ez arduratu, gutuna idazteko hamaika orri bete
eta bota behar badituzu. Garrantzitsuen da gura
dituzun berba eta mezuak helaraztea.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Datozen egunotan, ezohiko bidaia egiteko plane-
tan bazabiltza, ahalegindu garraio publikoan egi-
ten, denon onerako.



Menditik itsasora

Gipuzkoatik Uribe Kostara, azken transhumantzia

Mikel Etxezarreta artzain gipuzkoarrak 250 buruko artaldea gidatuko du bost egunez Zegamatik Getxora, ondoren Fredi Paia eta Aitor Gisasola getxoztarrek milaka urteko ohitura horren inguruko dokumentala egingo dute.

IKER RINCON MORENO

Milaka urtez egin legez... Belaunaldiz belau-naldi, Zegama (Gipuzkoa) inguruko artzainak gurera etortzen ziren, mendialdeetako elurtzetatik ihesi, artaldeentzako larre bila. Joxe Miel Barandiaranek neolitikoan kokatzen zituen ibilaldiak, eta azaltzen zuenez, ibilaldiek oso aldaketa gutxi izan dute harrezkero, denbora luze horretan. Artzainek gure artean igarotzen zuten arkumeak jaiotzeko sasoia, eta okelarako zirenak Algortako hiltzean hiltzen zituzten. Tximinia bakarreko baserriak bilatzen zituzten gure eskualdean; izan ere, tximinia biko etxeetan familia bi bizi ziren, eta ondorioz, ardi-entzako leku gutxiago egoten zen.

Gipuzkoatik Bizkairako transhumantzia horrek eragindako hartu-emanek gipuzkoar jatorriko sendi ugari ekarri dituzte gure eskualdera, eta Fredi Paia getxoztarrek azaldu duenez, «bizirik dago *pastore kiptuzen* memoria» gure eskualdeko luze-zabalean, aita-amamen artean, eta ez hain edadekoen artean ere bai. Gipuzkoako Goierriko artzainak gure eskualdera etortzeko ohiturak XX. mendeko 80ko hamarkadara arte iraun zuen; artzain haien artean, azkena Mikel Etxezarreta izan zen, Uribe Kostara belaunalditan etorri izan den etxezarretatarren sendikoa. Artzain gi-

puzkoarrak gogoratzen duenez, txikitik gurera etortzen zen neguan gurasoakaz; 12 urte zituela, lau hilabete egiten zituen Zegamako eskolan eta beste laurak Plentziakoan. Urteak igaro dira ordutik, baina artzaina da oraindino ere, bere aurrekoen ogibideari eutsiz.

Belaunaldiz belaunaldi, neguko hilabeteak ematera etortzen ziren Gipuzkoako Goierriko artzainak

Gipuzkoako artzainek gure artean igarotzen zuten arkumeak jaiotzeko sasoia, eta okelarako zirenak Algortan hiltzen zituzten

Uribe Kostara: Barrikara eta Getxora, berbarako. Diotenez, Barrikara, 1982an etorri ziren azkenengoz, eta 1971koa da artalde batek negua berton igarotzeko Getxoko Udalak eman zuen azken baimen-eskaria.

Akabuko martxea dokumentala

80ko hamarkadara arte iraun zuen ohitura hori akordura ekarri gura dute Fredi Paia eta Aitor Gisasola getxoztarrek. Horretarako, Etxezarretagaz harremanetan ipini ziren. Hala, transhumantzia hori errepri-

katuko dute azkeneko aldiz, gero dokumental bat egiteko. Horrenbestez, hilaren 8an irten eta bost eguneko ibilaldia egin ondoren, urriaren 12an, astelehen, Mikel Etxezarreta Algortara helduko da, 250 buru inguruko artaldeagaz batera. Artzainak iragarri duenez, bidaia gogorra izango da, eta uste du lekuak oso aldatuta aurkituko dituela. «Burura oroitzapen ugari datozkit: garai bateko pertsonak, tokiak, bidaiak. Oso emotiboa da, eta ia sinestezina, berriro egitea. Oso pozik nago, baina aldi berean, oso urduri ere, artaldea onik heltzen dela ikusi arte. Pozik, baina buruko minak eta kezka ere sentitzen ditut», aitortu du.


Dokumentalagaz, belaunaldiz belaunaldi Urbia inguruko artzainak gurera etortzen ikusi dituztenen memoria berreskuratu gura dutela azaldu dute Paia eta Gisasolak. Horretarako, ibilbide osoa grabatuko du Einarne Produksioak-ek, ordubeteko metrajea egiteko. Fredi Paia izan zuen egitasmo horren ideia: transhumantziaren ibilbidea errepikatzea eta dokumentala egitea, hain zuzen ere. Ikus-entzunezkoen eta dokumentalaren zuzendaria, berriz, Aitor Gisasola izango da. Ez da lehenengo aldia getxoztar biek elkarregaz jarduten dutena, aurretik *Getxo*, *Akordaten naz I* eta *II* (UK aldizkaria) egin zituztelako.

Azaldu dutenez, dokumentalak gogora ekarri nahi du artzainen ogibidea, merezi duen balioa



Akabuko martxea

Dokumentalaren trailerra



Ezkerreko eta goiko argazkiak © EINARTE PRODUKZIOAK. Zuri-beltzeko argazkia. © MEMORIAS DE GETXO, KARLA LLANOS

eman, eta horrek herrialde ezberdinetako biztanleen arteko hartu-emanetan sortzen zuen aberastasuna ere bai. Lanak utzitako ondarea ikustarazteko ere balio izango duela jakinarazi dute, «antzinako hartu-eman horren memoria berpiztuz eta balioan jarritz, etorkizunean guztiontzako onuragarri eta aberasgarriak izango diren ekimenak egiteko aukera izango delakoan gaude. Gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko harremanak indartzeko balio dezake, eta hori oso garrantzitsua da, beste herrialde batzuekiko harremanak kontuan hartzen ditugun bezala. Beraz, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ikus-entzunez-

Etxezarretak 12 urte zituela, lau hilabete egiten zituen Zegamako eskolan eta beste laurak Plentziakoan

ko egitasmoa gizarteratzearen bitartez Euskal Herria osatzen dugun errealitate ezberdinen ezagutza zabaltzea», adierazi du Fredi Paiak.

Proiektu hori garatzeko, hainbat entitaterekin lantzen jaso dute: Getxoko, Zegamako eta Idiazabalgo udalak, Uribe Kostako Mankomunitatea eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak. Era berean, entitate pribatu batzuek ere laguntza eskaini diete, esate baterako Idiazabalgo gazta izendapenak. Ibilbideak zeharkatuko dituen herriek ere kolaboratu dute, ho-

rien artean, Larrabetzu, Barrika eta Gamiz-Fikako udalek, baita hainbat herritarrek ere.

Goierri eta Uribe Kosta arteko abelbideak

Hilaren 8an, eguenagaz, atera da Urbiatik Mikel Etxezarreta Getxorako bidea hartuta, 250 buruko artaldean lagun. Ibilbidea oinez egingo du, baina trailer batean sartu beharko ditu ardiak tarte batzuetan. Fredi Paiak eta Aitor Gisasolak ere egingo dute bidea, aurreikusitako dokumentala osatzeko irudiak eta materiala batu ahal izateko. Lehenengo eguneko ibilbidea Urbiatik (Zegama) Otxandiorainokoa izango da; bigarrenean, Artaunera (Dima) helduko dira; hirugarrenean, Larrabetzura; laugarrenean, urriaren 11n, eguerdi-arrastian sartuko dira Andratik (Lemoiz) eta Barrikarainoko bidea egingo du, Abadeneko landetan lo egiteko; hurrengo eta azken egunean, urriaren 12an, handik Sopelako kostaldeko bideari jarraituz, Getxora helduko dira, 14:00ak aldera, Algortako Telletxe plazan azkeneko martxari amaiera emateko. Bertan, Imanol Landa Getxoko alkateak ondoetorria egingo dio taldeari, eta aspaldian udalerrira heltzen ziren artzainak ekarriko ditu gogora. Andoni Egañak ere azken etapa egingo du; berak eta Fredi Paiak bertsoz agurtuko dute ekimena. Bien bitartean, Idiazabalgo gazta dastatzeko eta erosteko aukera egongo da. Ostera, hori ez da izango Mikel Etxezarretaren eta bere artaldearen akabuko martxa; urriaren 22an, Urbiako Ttonttor txabolatik atera, eta hilaren 24an Idiazabalen amaituko du beste ibilaldi bat, bertan Euskadiko Gazta Txapelketa egingo da-eta. ◀

Ibilbidea

Urriak 8, eguna (lehen eguna)

06:30-07:00 Irteera, Urbiako Ttonttor artzain-txabolatik.

10:30-11:00 Urbia-Arriola-Narbaiza (Araba).

Narbaizan (Zalduondo) artaldea kamioian kargatu.

17:00 Otxandion sartu Oletatik. Herri barruraino joango dira, eta han bueltatxo bat emango dute; amaitutakoan, Oleta inguruko larreetara bueltatuko da artaldea.

Urriak 9, barikua (2. eguna)

06:30-07:00 Irteera, Otxandiotik Dimarako norabidean, BI-2543.

07:00-11:00 BI-2543 errepidean aurrera, Dimako hegazkin-zelairaino; bertan, artaldea kamioian sartu.

12:00-13:00 Dimako kiroldegiko atzeko aparkalekuan ardiak atera, eta bazkaltzeko Dimako larreetara eroan.

15:00-18:00 Dimako herrigunetik Artaunera.

Urriak 10, zapatua (3. eguna)

06:30-07:00 Irteera, Dimako Artaun auzotik, Aramotz-Beltxikietarako mendi-bidetik, Zornotzaraino.

07:00-13:00 Artaun-Aramotz-Beltxikieta-Zornotzako Santa Luzia auzoa. Bertan, artaldea kamioian sartu.

15:00-17:30 Zornotzako Marabi auzora sartzeko errepidearen aurreko errepide zabalagoan (Boroa auzoa) artaldea atera.

15:00-18:00 Marabi auzotik Larrabetzuraino, erdiguneraino.

18:00 Larrabetzutik buelta, ostera ere, Basaraz auzoko Goiri baserriko larreetara.

Urriak 11, domeka (4. eguna)

06:30-07:00 Irteera, Basarazeko Goiri baserritik, Goikoelexalderako bidean: BI-2713.

07:00-08:00 BI-2713 errepidetik Goikoelexalderaino.

08:00-08:30 Goikoelexalden artaldea kamioian sartu, elizaren aurreko zabalgunean.

10:00-12:00 Fikan ardiak atera, eta BI-3102 errepidetik Gamizeraino eroan.

Bertan, bazkaltzeko larreetara joango da artaldea, eta ondoren kamioian sartu.

14:00-18:00 Andraka Zabaletan (Lemoiz), Rufino Arrola plazaren bueltan, artaldea deskargatu. Bertatik Botiola baserriko gurutzeraino, BI-2120 errepidetik.

Botiolako gurutzan, Gandiagarako bidea hartu, errepidea alboratuta. Bertatik Gandiagarako biribilgunera.

Plentziako oinezkoen zubitik Txipiotako bidera Musaurietarantz (Barrika), galtzada zaharretik Sandelizen gora, Goierriko Abadene baserriaino.

18:00-18:30 Abadenetik gaueko larreetara, BI-2122 errepidea gurutzatu.

Urriak 12, astelehena (5. eguna)

06:30-07:00-13:30-14:00 Abadeneko larreetatik Meñakozerantza kostaldeko bidetik, Arriatera tabernen ondoko mendi-bidetik Barinatxe ingurura irten, eta bertan kostaldeko harrizko bidea hartu Azkorriaino.

Azkorritik, Goienetxe estartatik, Zientoetxera, Zientoetxen behera egin, Maidaganetik behera Benantzio bidegurutzeraino. Handik, Sarrikobaso kaletik gora egin. Algortako etorbidea, Mariandresena eta Telletxe kaleak zeharkatu, eta Telletxe plazan amaitu.

14:00-14:30 Harrera-ekitaldia.



Mundukatuak

Ruslan Ponomariov horlivkarra

«Hemen xake-afizio handia egon arren, ez da ikasten»

Ruslan Olegovich Ponomariov ukraniarra Getxon bizi da; nazioarteko xake-jokalari profesionala da. Hemen, «oso eroso» sentitzen da, inguruan kirol-eskaintza «handia» dago-eta. Orain dela hiru urte etorri zen Euskal Herrira bizitzera, Plentziara ezkondu zen, emakume uribekostar batez. Gero, Neguri Langilera joan ziren bizitzen. Halere, Euskal Herria 14 urte zituela ezagutu zuen, Iruñera etorri zen, txapelketa batera.

Ponomariov nazioarteko lehiaketetan dabil: barikuan, Berlinera bidaiatuko du, Munduko Xake Partida Arinen eta Blitz Txapelketan jokatzeko. Izan ere, ukrainarrak maisu handiaren titulua irabazi zuen 14 urte zituela. Inoizkorik gazteena izan zen orduan. Handik aurrera, munduko hainbat txapelketa irabazi du, gainera. Arago: Nazioarteko Xake Federazioaren txapelduna izan zen 2002tik 2004ra.

Kexu da inguruan ez duelako bere mailako *sparring*-xakelaririk topatzen entrenatzeko.

Bere ustean, «hemen xake-afizio handia dago, baina ez da Ukrainan beste ikasten», eta txapelkete-

Ponomariov triste dago bere sorterrira gerra-fronte bihurtu delako

tan, umeak «beranduegi» hasten dira. Bera 5 urtegeaz ikasi zuen bere aitagaz. 9 zituela utzi zuen Horlivka jaioterria, eta Kramatorsk hirira aldatu zen, xake ikasi eta lehitzeko.

Ponomariov triste dago bere sorterrira gerra-fronte delako. Kramatorsk ere Armada ukrainarraren eta matxi-noen arteko mugatik 50 kilometrora

dago. Hiri industrial biez harro dago, baina ez dio aholkatzen inori hortik pasatzea, oraingoz. Bera eta bere familia 2003an aldatu ziren Kievera.

Ukrainara joanez gero, Kiev hiriburu bisitatzea gomendatzen du, hiriak 1.500 bat urte baititu, eta hainbat elizak 1.000 urte ere badituzte. Ikusteko asko dauka, tartean, Dnieper ibai zabala eta ederra. Urtarrilaren 14an bertan izatekotan, ospakizun erlijioso baina xeble baten lekuko izan gaitzke: Jesukristoren bataioa gogora ekartzeko, jendea Dnieperren bainatu ohi da: «ibaia hotz-hotz dago, baina giroa hotzago, 10 gradu azpitik».

Jateko, *borscht* barazki-sopa edo *varenikiak* (raviolien modukoak) probatu beharra dago. Garagardotegiak bisitatu barik ere, ezin da alde egin. Hemen, oster, txakolina, Errioxako ardoak eta sagardoa goraipatzen ditu Ponomariovek, eguraldiagaz batera. ◀

Nongoa

Horlivka (Donetsk). Gaur egun, Ukraina eta Novorossiaren arteko gerra-frontean dago.

Adina

32 urte betetzear.

Zertan dabil

Nazioarteko xake-jokalari profesionala da, Grand Master kategoriakoa.

Ikasketak

Xakez gainera, zuzenbidea ikasi du.

Noiztik Euskal Herrian

Uribe Kostako emakume batez ezkondu zen 2012an, eta Plentziara etorri zen. Gaur egun, Neguri Langilen bizi da.

NONGOA DA



Lurraldea

Donetsk lurraldea.

Azalera

26.517 km² (Euskal Herria baino handiagoa).

Hiria

Horlivka.

Biztanleria

Gerra aurretik, 270.000 pertsona inguru. Orain, 180.000 bat.

Hizkuntzak

2001eko errollaren arabera, Donetsk lurraldean bi ziren hizkuntza nagusiak: batez ere errusiera erabiltzen zuten biztanleen %74,9k urte hartan. Beste %24,1ek, ukraineraz gehienbat. Gerrako alde biek koofizialtasuna onartzen dute. Gutxiengoek hainbat hizkuntza zerabiltzaten, tartean: armeniera, bielorrusiera eta tartaera.

Dirua

Ukrainako hryvna eta Errusiako errubloa.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua